



**KULTURA ONDASUN ETA
ZERBITZUETARAKO
IRISGARRITASUNAREN ESKULIBURUA**

**Gobierno
de Navarra**



**Nafarroako
Gobernua**



Edukiak:



Sorkuntza eta laguntza teknikoak:



1 EDUKIA

2	AURKEZPENA.....	3
3	ESPARRU TEORIKOA	4
4	HELBURUAK.....	7
5	IRISGARRITASUN UNIBERTSALA	8
5.1	IRISGARRITASUN FISIKOA.....	8
5.1.1	Legedi espezifikoa	8
5.1.2	Inplementaziorako proposamenak	9
5.1.3	Adibide praktikoa, kultura ondasun eta zerbitzuei aplikatua.....	14
5.2	IRISGARRITASUN SENTSORIALA.....	15
5.2.3	Legedi espezifikoa	15
5.2.4	Inplementaziorako proposamenak	15
5.2.5	Adibide praktikoa, kultura ondasun eta zerbitzuei aplikatua.....	19
5.3	IRISGARRITASUN KOGNITIBOA.....	21
5.3.3	Legedi espezifikoa	21
5.3.4	Inplementaziorako proposamenak	22
5.3.5	Adibide praktikoa, kultura ondasun eta zerbitzuei aplikatua.....	27
6	JARDUNBIDE EGOKIAK.....	28
6.1	Nafarroako Foru Komunitatea.....	28
6.2	estatuko esparrua	33
6.3	Nazioarteko eremua	41
7	ONLINE BALIABIDEAK	48
8	TERMINOEN GLOSARIOA	50
9	ERANSKINAK.....	52
9.1	NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO LEGEDIA	52
9.2	ESTATUKO LEGEDIA	54
9.3	UNE ARAUAK	57

2 AURKEZPENA

Nafarroako Gobernuak 2021eko ekainean onartu zuen Sarbide Unibertsaleko Plan Operatiboa, gai horretako 23 aldaketa jasotzen dituena, 85 neurri integratzen dituztenak. Neurri horiek Foru Legearen hainbat atal ukitzen dituzte, adibidez, erabilera publikoko eraikinak, irisgarritasunaren baldintzak garraioan, irisgarritasuna webguneetara eta gailu mugikorretako aplikazioak, zerbitzu publikoen prestakuntza, prestakuntza orokorra, komunikazioa eta informazioa, politiken diseinua, hezkuntzako eraikin publikoen irisgarritasuna, erabilera publikoko naturaguneen erabilera, aparkalekuen irisgarritasuna, zerbitzu eta produktuen irisgarritasuna, eta hirigintzako elementuak.

3

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia 1. Aldaketaren arduraduna da: Nafarroako kultura ondarearen ekipamendu, zerbitzu eta ondasunen irisgarritasuna sustatzea. Aldaketa horrek 8 neurri jasotzen ditu, eta Baliabideen eta Garapen Estrategikoaren Atala da 1. Neurriaren arduraduna.

Sarbide Unibertsaleko Plan Operatiboaren 1. Neurria betetzeko, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiko Baliabideen eta Garapen Estrategikoaren Atalak prestatu du kultura ondasunen eta zerbitzuen irisgarritasun unibertsalaren eskuliburu hau.

Eskuliburua nahitaezko erreferentzia izanen da kultura baliabideak, jarduerak edo ekitaldiak diseinatu, planifikatu eta kudeatzen dituzten profesional mota guztientzat. Kulturaren sektoreak laguntza aurkituko du gida honetan, herritarrei eskaintzen dizkieten ondasun eta zerbitzuetan hobekuntzak egiteko eta irisgarritasun unibertsala bermatzeko. Ezgaitasuna duten pertsonak, berriz, irisgarritasun egokia duten ekipamenduen erreferentzia bat izanen dute, eta haien parte hartzea ahalbidetuko duen kultura eskaintzarena ere bai.

Garrantzitsua da kultura eragileentzako prestakuntza eta sensibilizazio saioak eskaintzea, irisgarritasun unibertsala beren eguneroko jardunbidean integratu ahal izan dezaten.

Asmoa da eskuliburua oso praktikoa eta aplikatzeko erraza izatea. Hiru ataletan banatuta dago: bat irisgarritasun fisikoan zentratua, beste bat irisgarritasun sensorialean, eta beste bat irisgarritasun kognitiboan. Horiez gain, baditu jardunbide egokien atal bat, kontsultarako online baliabideak eta terminoen glosario bat ere bai. Amaieran, hainbat eranskin ditu, non fitxa laburretan azaltzen diren Planak ukitzen dituen arauak.



Lizarrako Antzinako Musikaren Astea

3 ESPARRU TEORIKOA

Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 12/2018 Legeak adierazten duenez, irisgarritasun unibertsala Desgaitasunak dituzten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioak jaso zituen printzipioetako bat da; Nazio Batuen Batzar Nagusiak (NBE) 2006ko abenduaren 13an onetsi zuen, Estatu espainiarrak 2007ko abenduaren 3an berretsi zuen, eta 2008ko maiatzaren 3an hartu zuen indarra.

Irisgarritasuna definitzen ahal dugu esanez ingurune, ondasun, produktu eta zerbitzuek bete behar duten ezaugarri bat dela, aukera ematen diena pertsona guztiei haietara iristeko, ulertzeko, erabiltzeko eta haietaz gozatzeko, modu normalizatu, eroso, seguru eta eraginkor batean. Irisgarritasunak «ororentzako diseinua» estrategia du abiapuntu, eta egin beharreko arrazoizko egokitzapenak ukatu gabe ulertzen da.

Irisgarritasun unibertsalaren kontzeptua garatuz joan da urteen joanean. Hasieran, irisgarritasunak barne hartzen zituen ingurune fisikoak soilik, alegia, leku zehatz batera iristea galarazten zuten oztopo arkitektonikoak ezabatzea, besterik ez. Kontzeptua konplexuagoa bihurtu da, ordea, eta gaur egun irisgarritasun unibertsalaren ideiak hainbat neurri hobesten ditu, kontuan hartu behar direnak, estrategia politikoak eta sozialak prestatzeko garaian. Hori da, adibidez, web irisgarritasunaren kasua.

Irisgarritasunak autonomia pertsonala bilatzen du, laguntza espezializatuak eskainiz, eguneroko eginkizunak egiteko independentzia mailarik altuena lortu ahal izateko, eta norberaren ingurunean ahalik eta hobekien egokitzeko. Oro har, erabakiak hartzeko eta gizartean parte hartzeko gaitasuna da, beste pertsona baten laguntzaren beharrik gabe.

Era berean, irisgarritasunak «katea» eragiten du, hau da, osagai multzo bat, erabiltzailearen eta ingurunearen arteko interakzioaren prozesuan, gune edo esparru guztietara hurbildu, iritsi, erabili eta ateratzeko aukera ematen duena, autonomiaz, erraztasunez eta etenik gabe.

Irisgarritasun unibertsala eta «ororentzako diseinu» horren bidez, honako printzipio hauek bermatu beharko lirateke:

- Baliagarritasuna eta hainbat gaitasun dituzten pertsonentzat parekidea izatea.
- Norberaren gogoaren eta trebetasun multzo zabal baten arabera egokitzea.
- Ulergarria eta ulerterraza, erabiltzailearen esperientziaren, ezagutzaren, hizkuntza trebetasunen edo unean uneko kontzentrazio mailaren arabera.
- Modu eraginkorrean komunikatzea erabiltzaileak beharrezkoa duen informazioa, ingurunearen baldintzak eta erabiltzailearen gaitasun sentsorialak kontuan hartuta.
- Nahigabeen edo ezbeharrez egindako ekintzen arriskuak eta ondorio txarrak minimizatzea.

Irisgarritasunaren esparruak honako hauek izan daitezke:

- Hirigintza
- Eraikuntza
- Mugikortasuna eta garraioa
- Kognitiboa
- Komunikazio sentsoriala

- Ondasunak eta zerbitzuak

Irigarritasun unibertsala aplikatzea funtsezkoa da pertsona guztien eta, bereziki, desgaitasunen bat duten pertsonen aukera berdintasuna, autonomia pertsonalaren sustapena, komunitateko inklusioa eta bizimodu independentea bermatzeko.

Irigarritasun Unibertsalari buruzko 12/2018 Foru Legearen VII. kapituluko 43. artikulua adierazten du kultura, kirol eta aisialdiko jardueretan eta halako ekitaldi publikoetan irigarritasun unibertsalerako baldintzak bermatu beharko direla, desgaitasuna dutenek jarduera eta ekitaldi horietaz goza dezaten, uler ditzaten eta haietan parte har dezaten.

Lege horretan bertan, IV. Tituluan, arautzen da Irigarritasun Unibertsala eta Pertsona ororentzako Aukera Berdintasuna Sustatzeko Kontseilua. Kontseiluaren eginkizunak hauek dira:

- a) Aginduzko txostenak ematea irigarritasunaren arloko foru lege aurreproiektuez eta erregelamenduzko xedepenen proiektuez.
- b) Foru lege hau eta legea garatzeko erregelamenduzko xedapenak bete daitezen sustatzea.
- c) Foru lege hau betetzeari buruz sor daitezkeen zalantzak argitzea.
- d) Teknika arloko aurrerapenak nahiz foru lege hau eta honen erregelamenduak aplikatzean jasotako iradokizunak aztertu eta biltzea, bai eta legearen helburuak betetzeko behar adina neurri har daitezen bultzatzea ere.
- e) Zaintza eta kontrol lanak egitea, foru lege honen aplikazio esparruetako inguruneetan irigarritasun unibertsalerako eta ororentzako diseinuaren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, eta, beharrezkoa bada, kasuan kasuko organoei zehapen espedientea abia dezatela proposatzea.
- f) Foru lege honetako xedapenen betetze mailari buruzko urteko txostena egitea eta Nafarroako Parlamentura bidaltzea.
- g) Arbitraje batzordeak ezartzea eta arbitraje sistemari dagozkion auzi eztabaidagarriak betetzen direla zaintzeko jarraipena egitea.
- h) Bere antolamendu eta funtzionamendurako erregelamendua onestea eta aldatzea.

Une honetan, Kontseilua osatzen dute honako hauek: Nafarroako Gobernuko departamentuetako 13 zuzendari nagusi, Nafarroako Desgaitasunak dituzten Pertsonen Ordezkarien Espainiako Batzordearen (CERMIN) 4 ordezkarik, Iratxe Kontsumitzaileen Elkartearen ordezkarik bat, Espainiako Normalizazio eta Ziurtagiri Emailerakundearen (AENOR) ordezkarik bat, Nafarroako Industria Elkartearen (AIN) ordezkarik bat, Nafarroako IKT enpresen elkartearen (ATANA) ordezkarik bat, eta Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioaren bi ordezkarik.

Irigarritasun unibertsalaren ildotik, honako hau dio Nafarroako Eskubide Kulturei buruzko urtarilaren 15eko 1/2019 Foru Legeak:

“6. artikulua. Kulturaren irigarritasuna. 1. Nafarroako Administrazio Publikoek begiratuko dute kulturarako irispidea eta kultur bizitzan parte hartzea egiazko berdintasunez gauzatzen direla, jatorriak, etniak, erlijioak, ideologiak, sinesteek, generoak, sexu orientazioak, desgaitasunak edo beste edozein ezaugarri pertsonal edo sozialek eragindako diskriminaziorik gabe. 2. Nafarroako Administrazio Publikoek baldintza egokiak sustatuko dituzte pertsonaren eta taldeen askatasuna eta berdintasuna errealak eta egiazkoak izan daitezen kulturarako irispideari eta kultur bizitzan parte hartzeari dagokienez, eta horiek erabatekoak izatea zailtzen edo eragozten duten oztopoak

kenduko dituzte. Horretarako, herritarrek kulturarako irispidea izatea eta kultur bizitzan parte hartzea sustatuko dute, eta beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte, positiboak barne, pertsona eta talde ahulen eta desgaitasuna dutenen inklusioa eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ziurtatzeko”.

Zentzu horretatik artikulatzen da, hain zuzen ere, eskuliburu hau.

4 HELBURUAK

Kultur ondasun eta zerbitzuen irisgarritasun unibertsalaren eskuliburu honen helburuak honako hauek dira:

Bizitza kulturean
desgaitasuna duten
pertsonek parte hartzea
areagotzea

Nafarroako Kulturaren Plan
Estrategikoa betearaztea

Ondarea desgaitasuna
duten pertsonek eskura
jartzea

Urtarrilaren 15eko
Nafarroako Eskubide
Kulturei buruzko 1/2019
Foru Legea betetzea

5 IRISGARRITASUN UNIBERTSALA

Gidaliburu hau prestatu da bete beharreko esparru gisa DALCO betebeharrak aintzat hartuta, alegia, ibiltzeko, iristeko, kokatzeko eta komunikatzeko ekintzei dagozkien betebeharren multzoa aintzat hartuta, horiek bete behar baitira irisgarritasun unibertsala bermatzeko.

IBILTZEA

Leku batetik bestera joateko ekintza.

Orokortasunak, Zirkulazio eremuak, Hurbiltzeko espazioak, Atsedene guneak, Plano aldaketak, Lurzoruak.

IRISTEA

Gauza bat hartu edo heltzeko ekintza. Barne du heldu beharreko gauzara iristeko ekintza.

Kokatzeko elementuak, Hurbilpen eta erabilpen guneak, Kokapena, Diseinua, Garraio Elementuak, Zerbitzu Osagarriak

KOKATZEA

Zerbait, norbait edo gertaera bat izan daitekeen leku edo une zehatza jakiteko ekintza.

Orokortasunak, Seinalazioa, Lurzorua, Bestelako bitartekoak, Zerbitzu osagarriak

KOMUNIKATZEA

Jarduera bat aurrera eramateko behar den informazioa trukatzeko ekintza.

Orokortasunak, Komunikazio ez interaktiboko bideak, Komunikazio interaktiboko bideak.

IKK (DALCO) irizpide horiek abiapuntuko tresna dira, gogoeta eta ekintza egitea garrantzitsua duten alderdi desberdinak aztertzeko.

Ondoren, kulturarako irisgarritasun fisikoa, sentsoriala eta kognitiboa hobetzeko hainbat proposamen aurkezten dira.

5.1 IRISGARRITASUN FISIKOA

Irisgarritasun fisikoaren kalitatea dute kultura ondasun edo zerbitzuez gozatzeko aukera, behar fisiko bereziak dituzten pertsonen gaitasun, behar eta espektatiben arabera egokituta, eskaintzen duten inguruneek.

5.1.1 LEGEDI ESPEZIFIKOA

Hona hemen irisgarritasun kognitiboarekin lotutako hainbat artikulua. Eranskinetako 8.-epigrafean aurkituko duzu legedi espezifikoko guztia.

Ekainaren 14ko 12/2018 FORU LEGEA

21. artikulua. Irisgarritasuna erabilera publikoko eraikinetan.

1. Erabilera publikoko eraikinak, establezimenduak edo instalazioak pertsona askok hainbat jarduera betetzeko erabiltzen direnak dira: jarduera sozialak, jostetakoak, kirol, kultura eta hezkuntza arlokoak, merkataritzakoak, administratiboak, asistentzialak, etxebizitzakoak, erlijiosoak, osasun arlokoak edo bestelakoak.

23. artikulua. Komunikazio horizontala eta bertikala.

1. Eraikin publiko baten erabilera edo zerbitzu desberdinak hartzen dituzten eremuen ezaugarriek aukera eman behar dute pertsona guztiek modu independentean erabil ditzaten, eta ibilbide irisgarrien eta ulergarrien bidez egon behar dute komunikatuta.
2. Gutxienez ibilbide irisgarri bat egonen da maila bakoitzean, kota berean dauden puntu irisgarri guztiak elkarrekin lotzeko, baita solairuko sarrera eta irteera, bertan dauden aterpe eremuak eta komunikazio bertikal irisgarriko nukleoak ere.
3. Ibilbide horizontal irisgarri osoan barna honakoak egonen dira bermatuta:
 - a) Gurpil-aulkian mugitzen diren pertsonen zirkulazioa.

24. artikulua. Mugikortasun bertikala.

1. Kota desberdinetan dauden gune irisgarrien artean gutxienez ibilbide irisgarri bat egonen da, maila desberdinen artekoa, eskailerak ez diren bide irisgarri bat ere izanen duena gutxienez. Solairu bat baino gehiagoko erabilera publikoko eraikinek igogailu irisgarria izanen dute beti desgaitasun guztietarako, edo arrapala irisgarria.
2. Solairu bakoitzean, igogailuaren ate aurrean, behar adinako tokia egonen da gurpil-aulkien edo ibiltzeko beste laguntza tekniko batzuen erabiltzaileak igaro ahal izateko, salbu eta berriak ez diren eraikinetan, haien ezaugarriek horretarako aukerarik ematen ez dutenean.

26. artikulua. Espazioen erreserba.

1. Bilkura aretoetan, ikuskizun aretoetan eta eserleku finkoak dituzten lokaletan eserleku moldagarriak jarriko dira ibilbide irisgarriaren ondoan, ongi seinalizatuta, aurkitzeko eta ebakutzeko errazak, desgaitasuna, mugikortasun murriztua edo desgaitasun sentzoriala dutenek erabil ditzaten; eremu horietan eta eserleku finkoak dituzten itxaron-guneetan gurpil-aulkiak erabiltzen dituztenentzat erreserbatutako tokiak egotea ziurtatuko da.

43. artikulua. Kultura, kirol eta aisialdi jardueretako irisgarritasun baldintzak.

1. Kultura, kirol eta aisialdiko jardueretan eta halako ekitaldi publikoetan irisgarritasun unibertsalerako baldintzak bermatu beharko dira, desgaitasuna dutenek jarduera eta ekitaldi horietaz gozatzeko, ulertzeko eta parte hartzeko aukera izan dezaten. Informazio guztia hizkera ulergarrian emanen da, erregelamenduz jardueraren arabera ezarritakoarekin bat.
3. Hornitzaile pribatuek kultura, kirol eta aisialdiko eskaintzaren zabalkundea pertsona guztientzat irisgarriak eta ulergarriak diren formatuetan egitea sustatuko dute.

5.1.2 Inplementaziorako proposamenak

Espazioek seguruak izan behar dute eta egokituta egon, haietara iristen diren pertsonak ahalik eta autonomia handienaz ibil daitezten. Horretarako, behar diren egokitzapenak egin beharko lirateke. Irisgarritasun Unibertsaleko 12/2012 Foru Legearen arabera, egokitzapen eta aldaketa horiek giro fisikoa, soziala eta jarrerazkoa desgaitasuna duten pertsonen behar espezifikoaren arabera egokitzeko egin behar direnak dira. Helburua da desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasuna eta partaidetza erraztea eta haien eskubide guztiak baliatu edo gauzatzeko aukera bermatzea, gainerako herritarren baldintza berdinetan, modu eraginkor eta praktikoan; egokitzapen horiek ezartzeak ez du neurritz gaineko edo bidegabeko karga ekarri behar.

Nolakoak izan behar dute espazio horiek?

Ulergarriak	Estetikoak.	Seguruak	Osasungarriak	Funtzionalak
<ul style="list-style-type: none"> •Pertsonak askotarikoak gara, eta dibertsitate horretara egokitu behar da, guztiok uler dezagun espazio horiek nola erabili behar ditugun. 	<ul style="list-style-type: none"> •Ezin dugu estetika ahaztu, gure esku-hartzeen helburu diren espazioen irisgarritasuna bermatzeko esperientzia globalaren osagaia baita. 	<ul style="list-style-type: none"> •Garrantzitsua da espazioek pertsonen duintasuna eta segurtasuna bermatzea, irisgarritasuna konfiantza osokoa izan dadin. 	<ul style="list-style-type: none"> •Osasunaren Mundu Erakundearen definizioaren arabera, "osasun arriskuen aurrean babesa eskaintzen duten espazioak dira, eta giroko faktoreek, faktore kolektiboek eta pertsonalek dute eragina haietan". 	<ul style="list-style-type: none"> •Baliagarriak eta erosoak izan behar dute, eta erabiltzaileen beharrei erantzun behar diete.

Irisgarritasun fisikoa hobetzeko hainbat neurri proposatzen dira, irisgarritasunaren alderdi desberdinen ingurukoak:

Lekura iristea:

- Aparkalekuak erreserbatzea mugikortasun murriztua duten pertsonentzat. Ondoko gai hauek berrikustea:
 - Dauden aparkalekuen kopurua, behar direnak daudela ziurtatzeko
 - Haien tamaina furgoneta egokituak sartzeko adinakoa izatea.
 - Ez izatea inguruan ibilgailuan sartzeko edo handik ateratzea eragozten duen elementu fisikorik.
- Garraio publiko irisgarriak hurbil dituen geltokiei buruzko informazioa ematea.
- Garraio horien aparkaleku eta geltokietatik leku horretara iristeko ibilbideak egokitzea.

Lekurako sarbideak:

- Kalearen maila berean izan behar dute
- Eskailera edota arrapala eta ate irisgarriak jartzea.
- Lehiatilak eta harrera-mahaiak irisgarriak izatea.
- Harrera zerbitzu bat antolatzea, erabiltzaileari laguntzeko lekura iristen den unetik bere tokia hartzen duen arte, edo erakusketa nahiz bisitaren ibilbidera sartzen den arte. Kultur ekintza bukatuta irteerara ere lagundu behar zaio.

Lekuaren barruko ibilerak:

- Mugimendu bertikal irisgarria bermatu behar da, igogailuak, eskailera igotzeko gailu elektrikoak edo bestelako gailuak jarriz.
- Oztoporik gabeko lekualdatze horizontala bermatu behar da.
- Eskudelak jartzea

- Ibilbideak egiteko behar diren denborak adieraztea, berdin erakusketa ikusteko edo hainbat espaziotara iristeko, komunera, kafetegira, etab.
- Laguntzako zakurren sarbidea bermatzea



Igogailua Erriberriko Jauregian

Seinalizazioak jarri behar dira:

- Lekuaren sarreretan.
- Barneko ibilbideetan.
- Komunetan nahiz bestelako zerbitzu tokietan.
- Kultur ekintza gauzatuko den espazioetan.
- Gurpil-aulkietan mugitzen diren pertsonentzako lekuak.
- Ohiko irteerak eta larrialdikoak.

Zenbait zerbitzu, besteak beste:

- Komun irisgarriak eta integratuak izatea.
- Taberna edo kafetegietako barra, merchandising produktu edo oroigarrien dendak eta bestelako zerbitzuak irisgarriak izatea.
- Sarreren salmenta aldeaz aurretik egitea gomendagarria da, web irisgarri baten bidez, edo telefono zenbaki baten bidez. Motrizitate murriztuagatik sagua erabiltzeko debekua duten pertsonen webaren edukira irits daitezke ordenagailuaren teklatuaren bidez edo ahotza ezagutzeko sistemen bidez.

Irisgarritasun fisikorako behar bereziak dituzten pertsonen kokapena:

- Hainbat solairutatik ikus daitezkeen ikuskizunen kasuan, ahal bada beheko solairuan jarriko dira, baina ez beti lehenengo lerroan, ez lehenengo lerroaren aurrean ere, eta azken lerroan ere ez.
- Leku horiek hurbil izanzen dituzte larrialdiko irteerak, komunak eta bestelako zerbitzuak.
- Gurpil-aulkian dabilzan pertsonentzako eta mugikortasun murriztua duten pertsonentzako espazioak eserlekuen blokean integratu behar dira, lurzoru horizontalaren gainean. Eserlekuen blokean integratuta, aukera ematen zaie behar berezirik ez duten pertsonekin batera gozatzeko ikuskizunaz.
- Lurrean seinalez tatu behar da gurpil-aulkietan dabilzan edo mugikortasun murriztua duten pertsonentzako lekuen kokapena.

Segurtasun betekizunak:

- Dagokion Ebakuazio eta Larrialdi Plana izatea, larrialdi kasuan erreskatatzeko lehenetsuna duten taldeen artean jarri mugikortasun murriztua duten pertsonak.

Pertsona laguntzaileak

- Kontuan izan behar da desgaitasun fisikoa duten pertsona batzuek laguntzako pertsona bat behar izaten dutela, eta hura gabe ezin izanzen luketela kultur ekitaldi horretaz gozatu. Beraz, pertsona laguntzaile horiek ez liriateke ohiko ikusletzat hartu behar, eta komenigarria izanzen litzateke kasu horietan doan sartzeko aukera izatea.

Catering zerbitzua

- Otamen bat eskaintzen bada, kontuan izan behar dira gai hauek, mugikortasun murriztua duten pertsona guztientzako irisgarria izan dadin:
 - Cateringaren kokapena: irisgarria behar du. Beheko solairuan kokatu behar da, edo iristeko aukera eman, igogailu edo arrapalekin. Komun egokituetatik hurbil kokatu behar da.
 - Elikagaien kokapena: horiek jartzeko altuerak egokia izan behar du gurpil-aulkian dabilen pertsonak hartzeko modua izan dezan. Gainera, mahaiaren ertzetik ahalik eta hurbilen egon behar du, besoa gehiegi luzatu behar ez izateko.
 - Elikadurarako laguntza teknikoak erabiltzea gomendatzen da, esaterako, edalontzi ergonomikoak, heltzea errazteko, edo/eta estalkiarekin, edaria botatzea eragozteko; mahai-tresna egokituak, forma ergonomikoarekin edo malguak, erabiltzaile bakoitzaren araberako forma eman ahal izateko; plater egokituak janaria ez ateratzeko, ertz bereziekin eta okerdura txiki batekin, etab. Tresna horiek guztiak eskuragarri daude ortopedian eta denda espezializatuetan.

Nolakoa behar du irisgarritasun fisikoko premiak dituzten pertsonetako interakzioak?

- Pertsonak bidean laguntza behar badu, ez ibiltzea arinegi
- Gomendagarria da pertsona horiei esertzeko aukera ematea hala behar dutenean, esperoan egon behar dutelarik, haiek eskatu beharrik gabe.

- Ez aurrez juzgatzea haien gaitasun intelektuala
- Ez ume gisa tratatzea
- Kasu zehatzetarako gurpil-aulki bat eskaintzeko modua izatea gomendatzen da
- Laguntzako osagaiak erabiltzen baditu pertsonak, esaterako makuluak, makila, etab., ez dira ukitu behar, ez harengandik aparte jarri, haren baimenik gabe
- Gurpil-aulkietan dabiltzan edo mugikortasun murriztua duten pertsonentzako erreserbatutako lekuak beti errespetatzea
- Hitz egitea beti pertsona horri eta ez haren laguntzaileari
- Irisgarritasun fisikorako baliabideak behar ote dituen zalantza badugu, beti begirunez galdetzea.

5.1.3 Adibide praktikoa, kultura ondasun eta zerbitzuei aplikatua.

ALACANTEKO MUSEO ARKEOLOGIKOA	
Tokia	Alacant
Erakundea	Alacanteko Museo Arkeologikoa (MARQ) eta Alacanteko Probintzia Diputazioaren Arkitektura Zerbitzua
Data	Gaur egun
Deskribapen orokorra	Museoa sortu zenetik kontuan hartu izan da diseinu unibertsala, eraikinaren arkitekturara eta aztarnategietan barnako ibilbidearen egokitzapenera aplikatuta. Erakusketak, denda, liburutegia etab., solairu berean daude. Beste baliabide batzuetara iristeko igogailuak edo gurpil-aulkien jasogailuak daude. Bisitarietzako gurpil-aulkiak ditu museoak, behar duenarentzat. Sarrera nagusiak baditu bi arrapala beren eskudelarekin. Sarreran badira bi komun egokituak, gainerako komunekin integratuta. Tranbia erabiliz iris daiteke, parking publiko bat du hurbil, mugikortasun murrizteko pertsonentzako plazak erreserbatuak dituena, eta beste plaza erreserbatu bat dago museoaren sarrera nagusian. Aztarnategi arkeologikoa ere erabat irisgarria da.
estekak/kontaktua	https://accesibilidad.marqalicante.com/movilidad-reducida/

5.2 IRISGARRITASUN SENTSORIALA

Irigarritasun sentsorialaren kalitateak dute kultura ondasun edo zerbitzuez gozatzeko aukera, nolabaiteko desgaitasun sentsoriala, osoa edo partziala, duten pertsonen gaitasun, behar eta espektatiben arabera egokituta, eskaintzen duten inguruneek. Entzumen eta ikusmen desgaitasunez gain, badira beste hainbat desgaitasun sentsorial.

5.2.3 Legedi espezifikoa

Hona hemen irigarritasun kognitiboarekin lotutako hainbat artikulua. Eranskinetako 8.-epigrafean aurkituko duzu legedi espezifikoko guztia.

12/2018 FORU LEGEA, ekainaren 14koa, Irigarritasun Unibertsalari buruzkoa

18. artikulua. Hirigintza hornigaiak eta haurrentzako parkeak.

4. Elementu horiek irigarriak eta ulergarriak izan daitezzen bete beharreko parametroak eta ezaugarriak erregelamendu bidez ezarriko dira; edozein kasutan, gutxienez, alderdi hauek hartu behar dituzte kontuan: seinaleen azpiko altuera libreka, espaloietako kokapena eta botoien eta eskuz eragin beharreko mekanismoen kokapena, bai eta zenbait teknika inplementatzea ere, hots, soinu-zuko seinaleak, irakurketa erraza, piktograma homologatuen erabilera eta braille sistema, bidezkoa den lekuan.

23. artikulua. Komunikazio horizontala eta bertikala.

3. Ibilbide horizontal irigarri osoan barna bermatuko dira honako hauek:

b) Zoladura egokia izatea, irristatzeko arriskua ahalik eta txikiena izateko eta desgaitasuna edo mugikortasun mugatua duten pertsonen joan-etorriak errazteko, bai eta ikusmen desgaitasuna dutenak bertatik autonomiaz ibiltzea ziurtatzeko ere.

c) Zenbait guneren ikusizko komunikazioa, haien erabileraren arabera, entzumen desgaitasuna duten pertsonen beharrak kontuan hartuta.

26. artikulua. Espazioen erreserba.

2. Eremu horietan guztietan, orobat, begizta magnetiko bat edo entzumen desgaitasuna dutenen irigarritasuna bermatuko duen sistema alternatibo bat bermatuko da, eremu batean jarria eta behar bezala seinaleztatua. Zeinu-hizkuntzaren interpreteak hizlariengandik gertu jarriko dira, eta argitazpen berariazkoa izanen dute.

27/2007 LEGEA, URRIAREN 23koa, ESPAINIAKO ZEINU-HIZKUNTZAK AITORTZEN DITUENA, ETA GORREN, ENTZUMEN DESGAITASUNA DUTENEN ETA GOR-ITSUEN AHOZKO KOMUNIKAZIOARI LAGUNTZEKO BITARTEKOAK ARAUTZEN DITUENA.

10. artikulua. Jendearen eskura dauden ondasun eta zerbitzuen irigarritasuna.

d) Kultura, Kirola eta Aisia. Eskumena duten administrazio publikoek sustatuko dute zeinu-hizkuntza espainiarren interpretazio-zerbitzuen eskaintza, aldeztatik hala eskatzen den kasuetan, haien erabiltzaileentzat, zehazten diren jardueretan, kultura, kirol, jostaketa nahiz aisialdi arloetan, besteak beste zine, antzoki eta museo nazionalen, Estatuaren Ondareko monumentu historiko-artistikoetan, eta bisitaldi gidatuetan, haietan parte hartzen dutenean pertsona gorrek, entzumen desgaitasuna dutenek eta gor-itsuek.

5.2.4 Inplementaziorako proposamenak

IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA

Desgaitasun sentsoriala duten pertsona guztientzat irisgarriak izateko, baliabide guztiek, grafiko, auditibo nahiz eduki arlokoek, etab., formatu desberdinak hartu behar dituzte kontuan.

Hona hemen idatzizko komunikazioa errazteko hainbat irizpide:

- **Iturria:** *palo seco* motakoak izatea (arial, verdana, etab.). Tipografia horiek lodiera berdina dute alde guztietan, eta ez dute erremate, grazia edo serifa izeneko bukaerarik. Era horretan, irakurketa errazten da.
- Testua ezkerrera **justifikatuta** egotea, irakurketa errazteko.
- **Tamaina:** 12 edo 14tik gora, zabaldu beharreko testu guztietan.
 - Ikusmen urriko pertsonen irakurketa errazteko, hizkien tamaina handitu 16 edo 20raino. Hala ere, komenigarria da irakurri behar duenari galdetzea tamaina handitze hori beharrezkoa ote den, izan ere, kaltegarria gerta daiteke tunel moduko ikuskera duten pertsonentzat.
- **Lerro arteko** tartea gutxienez 1,5 izatea.
- **Teklatuaren** erabilera maximizatzea informazioa web bidez ematen denean.
- **Braille** transkribapena
- **Erliebea** duten hizkiak erabiltzea.
- Word dokumentuak erabiltzea **pantaila irakurleentzat**.
- **QR kodeak** erabiltzea: hainbat puntu dira, informazioa gailu mugikorraren bidez eskuratzeko aukera ematen dutenak. Berehalako sarbidea eskaintzen dute, eta era horretan, informazioa beste formatu batzuetan aurkez daiteke, esaterako audio formatuan.
- **Navilens**¹ kode sistema: QR kodearen garapentzat jo daiteke. Ikusmen desgaitasuna duten pertsonentzat daude pentsatuta, erabiltzaileek ez dutelako beraien kokapen zehatza ezagutu beharrik. Sistemak aukera ematen du kodeak mugikorrarekin eskaneatzeko 160 gradura arteko irakurketa-angelu batekin, 0,03 segundotan, eta argitasun baldintza anitzekin. Ez da zertan enfokatu kamerarekin, kode horiek urrundik irakur baitaitezke, 15 metrotik ere. Laguntza handia da, bereziki barneko aldeetan gidatzeko, GPS seinalerik ez baita izaten hainbat lekutan. Telefono mugikorra astindu daiteke, eta etiketek gailura igortzen dute behar den informazioa.
- Kontrastea duten **koloreak** erabiltzea, gehienbat beltza eta zuria, horiek ikusten direlako hobekienik pantailan, baina beste hainbat ere bai, **horia beltz ganean**, **zuria urdin ganean**, **zuria gorri ganean**, **horia berde ganean**, **urdina zuri ganean**, **gorria zuri ganean**.



Irudi grafikoak ikusmen desgaitasuna duten pertsonen interpretatu ahal izan ditzaten, honako aukera hauek planteatzen dira:

- Irudiak deskribatzeko testu alternatibo bat erabiltzea, aurreko puntuko gomendioak betez.

¹ <https://www.navilens.com/es/>

Testuinguruaren gainko informazioa emateko honako gomendio hauek egiten dira:

- **Audio-gida audio-deskribapenarekin:** Teknologia honek kontakizun bikoitza egiteko aukera ematen du: alde batetik audio-gida, informatiboa dena, eta bestetik, audio-deskribapena. Audio-deskribapena zerbitzu lagungarri bat da ikusmen zailtasunak dituzten pertsonentzat. Entzunezko kontakizuna eskaintzen du, deskribapenak emanez estetikari eta espazioari buruz (adibidez, oso egokia da keinuak, paisaiak, janzkera, etab., ezagutzeko). Bi informazio bide desberdinak izanik, hautazkoak izan daitezke. Aukera oso interesgarria da arte eszenikoetarako.
- **Ibilbideak eta ukimenezko miaketa:** Ibilbide bat egiten da ikuskizuna osatzen duten elementu desberdinak miatzeko, adibidez eszenografia, jantziak, musika tresnak, artelanak ahal bada, etab. Gainera, ibilbidea egiten duten pertsonak objektuen tamaina eta espazioan duten kokapena ezagutzen ahal dituzte. Ekintza hori ikuskizuna hasi aurretik egin ohi da, edo pertsonak kokatzeko ibilbide bat egin aurretik.
 - Ukipenezko miaketaren barnean piezak **3D** inprimagailu baten bidez inprimatu daitezke, horrek aukera ematen baitu artelanak edo bestelako objektuak ukituz miatu eta ezagutzeko.
- **Oinen ukipenerako azalerak:** Gomendagarria da lurzoru mota horiek jartzea eraikinen barnean ere. Lurzoru horien azalera lagungarria da pertsona itsuentzat edo ikusmen urrikoentzat, ibilbideak ezagutzeko makilaren bidez.
- **Gidatuaren teknika:** Once erakundeak bere web²gunean islatzen duenez, ikusmen desgaitasuna duen pertsonari bidelaguntza eskaintzeko gakoetako batzuk hauek dira:
 - Haren aurretik pausu erdira ibiltzea, gure besotik helduta ibili ahal izan dadin. Heltzeko seinalea eman daiteke hitzez edo zuzeneko kontaktu baten bidez.
 - Ikusmen desgaitasuna duen pertsona eta bere gidariak besoa gorputzetik gertu eraman behar dute, informazioa era egokian igorri eta jasotzeko. Biek ala biek ahalik eta lasaien egon behar dute.
 - Pertsona gidatuak gidaren besoari helduko dio ukondoaren gainetik, hatz erpurua jarritz haren besoaren barneko aldean, eta beste lau hatzak kanpo aldetik itxiz. Heltzeko moduak kontaktua izateko bezain tinkoa izan behar du, baina ezerosoa izan gabe.
 - Ikusmen desgaitasuna duen pertsona gidaren atzetik pausu erdira ibiliko da, era egokian erreakzionatu ahal izateko hark emanen dion informazioa jaso ondoren.
 - Bien pausuak koordinatua izan behar du, abiaduraren eta ibilbidearen ezaugarrien arabera egokitua.
 - Ibiltzen diren bitartean gidak informazioa ematen ahal du giroari edo ibilbideari buruz.
 - Normalean, ikusmen urriko pertsonak makila daraman eskuaren beste aldean ibili behar du gidak.



² <https://www.once.es/dejanos-ayudarte/acercate-a-las-personas-con-ceguera/anexos/ayuda-al-desplazamiento>

- Ez da inolaz ere makilatik edo arropatik heldu behar gidatzeko, ez eta atzetik bultza egin ere.

AHOZKO KOMUNIKAZIOA

Hainbat kultura sektoretan audioak, elkarrizketak edo ahozko azalpenak entzun ahal izatea errazteko, hona hemen irizpide batzuk:

- Audioaren edukia **azpitoluz** hornitzea: Komenigarria da eduki guztiak azpitoluz hornitzea. Transkripzioa denbora errealean behar izanez gero, egokia da estenotipia sistema bat izatea (azkar idazteko metodoa, estenotipia-makina deitzen den teklatu bat duena), testuak pantaila handian proiektatzeko.
- **Gain-titulua**: testua gain-tituluetan itzuli eta egokitzea da, antzezleen zuzeneko elkarrizketekin modu sinkronizatuan.
- **Azpitoluak pertsona gorrentzat**, (SPS): komunikazioari laguntzeko zerbitzua da, pertsona gorrei edo entzumen urritua dutenei aukera ematen diena ulertzeko, kasu honetan, kultura ekintza. Azpitoluetan jarri behar dira elkarrizketak eta haren formak (azentuak, irriak, marmarrak...), soinu efektuak eta giroko zaratak, esaterako txirrina bat, txorien txioak eta entzunezko informazioa, oro har. UNE 153010 arauak arautzen du.
- Kontuan izan behar da bai testuak bai ahotsak bereizi behar direla gainerako ikus eta entzun estimuluetatik.
- **Begizta magnetikoa**: gailu bat da, audifonoa erabiltzen duten edo inplante koklearra duten pertsonen aukera ematen diena soinuaren zuzeneko transmisioaz gozatzeko, urruneko soinuen, giroko zaraten eta erreberberazioaren eragozpenik gabe.
- **Soinu anplifikatua**: FM sistema bat da, aurikularren bidez anplifikatutako soinua eskaintzen duena.
- Zeinu Hizkuntza Espainiarra (**LSE**): gomendagarria da interpreteak izatea.
- Arreta **posta elektronikoa** bidez emateko aukera ematea, telefonoz edo aurrez aurrekoaz gain.
- Kontuan izan behar da, baita ere, desgaitasun sentsozial bat baino gehiago duten pertsonak badirela, esaterako, **gortasun-itsutasuna** dutenak. Berariazko prestakuntza edo ezagutzarik izan ezean, esku-ahurraren gainean hitz soilak idaztea gomendatzen da, esaterako, lekua, edo egin behar den jarduerak.

KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE HAINBAT GAUZA

- Gomendagarria da **kolorea** ez izatea erreferentzia bakarra, kartel, ikuskizun, erakusketetan, etab.; hobe da beste forma batzuk, soinuak eta elementuak erabiltzea, irisgarriak izan daitezen, baita ere, koloreak ikusteko desgaitasuna duten pertsonentzat.
- **Flashak erabiltzea saihestea**: segundoko hiru flash baino gehiago eragiten duten estimuluekin kontuz ibiltzea, krisialdi epileptikorik eragitea saihesteko. Soinu oso gogorak ere saihestu behar dira, helburu berarekin.
- Larrialdiko **alarma** sistemak bisuala eta argizatua behar du izan, entzutekoa ez ezik.

- Desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako **aparkalekuetan**, kontuan izan behar da inguruan ez izatea ikusmen desgaitasuna duten pertsonentzako oztopo izan daitekeen inolako elementu fisikorik.
- **Arreta zerbitzu** bat antolatzea, erabiltzaileari laguntzeko lekura iristen den unetik bere tokia hartzen duen arte edo erakusketa nahiz bisitaren ibilbidera sartzen den arte. Kultura ekintza bukatuta irteerara ere lagundu behar zaio.

LAGUNTZAKO PERTSONAK

- Kontuan izan behar da desgaitasun sentsoriala duten pertsona batzuek laguntzako pertsona bat behar izaten dutela, eta hura gabe ezin izanen luketela kultur ekitaldi horretaz gozatu. Beraz, pertsona laguntzaile horiek ez lirateke ohiko ikusletzat hartu behar, eta komenigarria izanen litzateke kasu horietan doan sartzeko aukera izatea.

CATERING ZERBITZUA

- Otamen bat eskaintzen bada, kontuan izan behar dira gai hauek, desgaitasun sentsorial motaren bat duten pertsona guztientzako irisgarria izan dadin:
 - Gomendagarria da jangai bakoitzak ondoan etiketa bat izatea, zer den irakurri ahal izateko, Braille sistema edo erliebeko hizkien bidez. Lehen deskribatutako NaviLens sistema ere erabil daiteke, jakiteko zer jangai dagoen eta mahaian nola kokatuta dauden, eta gainera, haietako bakoitza enfokatu eta zer osagai daramatzen jakin daiteke.

Nolakoa behar du irisgarritasun sentsorialeko beharrak dituzten pertsonetako interakzioak?

- Hitz egitea beti pertsona horri eta ez haren laguntzaileei
- Ez tratatzea ume gisa
- Irisgarritasun sentsorialeko baliabideak behar ote dituen zalantza badugu, beti begirunez galdetzea.
- Ikusmen zailtasunak dituzten pertsonak
 - Gure burua hitzez identifikatzea haiei mintzatu aurretik
 - Beti modu deskriptiboan hitz egitea
 - Gida-makila ez ukitzea, ez kentzea ere, erabiltzailearen baimenik gabe
 - Laguntzako zakurren sarbidea bermatzea
- Entzumen zailtasunak dituzten pertsonak
 - Pertsonari hitz egitea guri begira dagoenean
 - Zeinu-hizkuntza ezagutzen ez bada, poliki hitz egitea, eta entzumen zailtasuna duen pertsonari aurrez aurre begiratu.

5.2.5 Adibide praktikoa, kultura ondasun eta zerbitzuei aplikatua.

ADDAMS FAMILIA MUSIKALA	
Tokia	Madril

Erakundea	LetsGo Company
Data	2017-2020
Deskribapen orokorra	Entzumen eta ikusmen desgaitasuna duten pertsonentzat irisgarria den musikala, aplikazio adimentsu bati esker, aukera ematen baitu lanaren jarraipena egiteko audio-deskribapenaren, transkripzioaren eta/edo zeinuhizkuntzara itzulita, tablet edo smartphon bidez. Tableta duten atrilak banatzen dira, musikala jarraitu ahal izateko gailuaren pantailaren argiak inori eragozpenik sortu gabe.
Estekak/kontaktua	https://lafamiliaaddams.com/

5.3 IRISGARRITASUN KOGNITIBOA

Irigarritasun kognitiboaren kalitateak duten inguruneek aukera ematen dute kultura ondasun edo zerbitzuez gozatzeko, nolabaiteko desgaitasun intelektuala, edo/eta garapen nahasmenduak, edo eguneroko bizitzan egoera desberdinetara egokitzeko zailtasunak dituzten pertsonen gaitasun, behar eta espektatiben arabera egokituta.

5.3.3 Legedi espezifikoa

Hona hemen irigarritasun kognitiboarekin lotutako hainbat artikulua. Eranskinetako 8.-epigrafean aurkituko duzu legedi espezifikoa guztia.

Ekainaren 14ko 12/2018 FORU LEGEA

18. artikulua. Hiri hornigaiak eta haurrentzako parkeak.

4. Erregelamenduz ezarriko dira elementu horiek irigarri eta ulergarritzat jotzeko bete beharreko parametroak eta ezaugarriak; edozein kasutan, gutxienez, alderdi hauek hartu beharko dituzte kontuan: seinaleen azpiko altuera librekoa, espaloietako kokapena eta botoien eta eskuz eragin beharreko mekanismoen kokapena, bai eta zenbait teknika inplementatzea ere, hots, soinu-zuko seinaleak, irakurketa erraza, piktograma homologatuaren erabilera eta Braille sistema, bidezkoa den lekuan.

20. artikulua. Seinalizazio eta informazio irigarriak.

1. Oinezkoentzako ibilbideek seinalizazio osatua izanen dute, edozein desgaitasun duten pertsonak beti jakin dezaten haien kokapena eta orientazioa, eta seinaleak irakurgarriak eta ulergarriak izatea bermatu beharko da.

2. Bermatuko da, bestalde, erraza izatea inguruneko gune eta ekipamendu nagusiak aurkitzea, norabidea adierazten duen seinalizazioaren bidez, oinezkoentzako ibilbideetatik oinezkoek ongi hautemateko moduan. Erraztuko da, bestetik, eremu publikoan orientatu ahal izatea, irakurketa errazeko metodologiaren bidez eta piktograma homologatuak, braille, soinu-seinaleak edo informazioa eskuratzeko unean berme gehien ematen duten sistemak erabiliz. Bereziki hartuko dira kontuan errotuluen neurria eta kolorea, argiak itsutzeko arriskurik ez izatea, gutxieneko argiztapena, kokapena, altuera eta orientazioa, bai eta haiek ikustea galarazi edo zaildu dezakeen oztoporik ez izatea. Erabakitzen den guneetan, mapen eta informazio puntuen bidez osatuko da seinalizazioa, eremu publikoan orientatzen eta autonomiaz mugitzen laguntzeko.

23. artikulua. Komunikazio horizontala eta bertikala.

1. Eraikin publiko baten erabilera edo zerbitzu desberdinak kokatuta dauden eremuen ezaugarriak aukera eman behar dute pertsona guztiak modu independentean erabiltzeko. Bestalde, ibilbide irigarrien eta ulergarrien bidez egonen dira komunikatuta.

43. artikulua. Kultura, kirol eta aisialdi jardueretako irigarritasun baldintzak.

1. Kultura, kirol eta aisialdi jardueretan eta halako ekitaldi publikoetan irigarritasun unibertsalerako baldintzak bermatu beharko dira, desgaitasuna dutenek jarduera eta ekitaldi horietaz goza dezaten, uler ditzaten eta parte har dezaten. Informazio guztia hizkera ulergarrian emanen da, erregelamenduz jardueraren arabera ezarritakoarekin bat.

3. Hornitzaile pribatuak espres sustatuko dute kultura, kirol eta aisialdiko eskaintzaren zabalkundea pertsona guztientzat irigarriak eta ulergarriak diren formatuetan egin daitezela.

5.3.4 Inplementaziorako proposamenak

IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA

Irigarritasun sentsorialaren kasuan bezala, baliabide grafikoak, auditiboak, edukiaren arlokoak, etab., hainbat formatutan eskaini behar dira, behar kognitibo espezifikoak dituzten pertsonentzat irisgarriak izan daitezzen.

- **Irakurketa erraza:** testu bat egokitzea da, hizkera argi eta errazean emateko. Era horretara, errazagoa da testua irakurtzea eta ulertzea. Lagungarria da kultura irisgarria izan dadin desgaitasun kognitiboa duten pertsonentzat, eta orobat prestakuntza edo hizkuntzaren ezagutza urria edo hizkuntza zailtasunak dituzten pertsonentzat. Hona hemen jarraitu beharreko hainbat irizpide, irakurketa errazeko testu bat egiteko, Discapnet³ erakundearen arabera:
 - Beti esaldi motzak erabiltzea.
 - Garrantzitsua da ezezko esaldiak saihestea.
 - Ez erabiltzea zenbaki asko, eta eman behar badira, zenbakiz hobe, letraz baino.
 - Ez erabiltzea nahasgarriak izan daitezkeen metaforak edo konparazioak.
 - Esaldi bakoitzean mezu bakarra transmititzea.
 - Esaldiak elkarrekin lotuta ematea, pertsonak informazioaren haria jarraitu ahal izan dezan.
 - Irudiak edo piktogramak gehitzea.
 - Ez idaztea guztia maiuskulaz. Errazagoa da letra txikiak irakurtzea.

Zentzu horretan, interesgarria da dena delako ekitaldi kulturalaren programak ere Irakurketa Errazean idaztea, hobeki irakurri eta ulertzeko lehenengo ikustaldian.

- Irakurketa errazeko testu baten **balidazioa**: Testu bat irakurketa errazera egokituzat jo ahal izateko, balidazio prozesu bat igaro behar du, eta hor probatuko da, hartzailleak izanen diren pertsonen aldetik. Prozesu hori finkatu zen “UNE Araua 153101:2018 EX Irakurketa erraza. Agiriak idazteko irizpideak eta gomendioak” argitaratu zenean.
- Irakurketa errazaren **Logoa**: Erabili ahal izateko bete behar dira “Guztientzako informazioa, erraz irakurri eta ulertzeko moduko informazioa egiteko arau europarrak⁴” gidaliburuan ezarritako baldintzak, eta balidatzea, ulergarria dela ziurtatzen duten pertsonekin.



³ Desgaitasuna duten pertsonen gizarte eta lan integrazioa sustatzeko ekimena, ONCE Fundazioak eta ILUNION Tecnología y Accesibilidad erakundeak batera finantzatua.

⁴ https://www.pleninclusion.org/wp-content/uploads/2021/03/informacion_todos.pdf

Una arqueta es una caja pequeña para guardar joyas y otros objetos valiosos.

Esta arqueta está hecha de marfil, que es el material duro de los colmillos de los elefantes.

Está fabricada en los talleres del palacio de Medina Azahara, cerca de Córdoba.

El palacio de Medina Azahara era el palacio de los reyes árabes en España durante la Edad Media.

La arqueta fue un regalo para el hijo de Almanzor.

Almanzor fue un político y general muy importante del reino árabe en España hace 1000 años.

La arqueta está decorada con formas de plantas, animales y figuras humanas.

Es difícil encontrar esta decoración de figuras humanas en el arte del reino árabe porque su religión lo prohíbe.



¿Dónde está situada la obra?
Planta 1. Sala 1.8

8

9

Erraz irakurtzeko testuaren eredua. Nafarroako Gobernuak. "6 obras maestras en el Museo de Navarra"

- Web-orriaren **nabigazio mekanismoak** erabil errazak izan behar dute, irisgarritasun kognitiboa hobetzeko⁵.

BESTELAKO KOMUNIKAZIO FORMAK:

- **Eszenatoki multisentsoriala:** Espazio horiek teknologia, diseinua eta profesionalak prestakuntza espezifikoarekin konbinatzen dituzte, estimulu multisentsorialak sortzeko. Ikusle-entzuleak bere zentzumen gehienak erabiltzen ditu: ukimena, ikusmena, usaimena, entzumena... Normalean, eszenatokian dago, eta antzezleak harekin interakzioan aritzen dira. Kasu horretan, ikuskizunera joan den pertsona geldirik egon daiteke, edo eszenatoki osoan barna mugi daiteke. Behar badu, aretotik atera daiteke noiznahi, isiltasunean egoteko edo/eta erlaxatzeko. Gainera, ikuskizunean hitz egin edo espresatzeko aukera dago. Antzezleek alde aurretik ezagutu behar dituzte haien interakzioaren hartzaileak izanen diren pertsonak, era egokian egin ahal izateko (esate baterako, kontaktua saihesteko hipersentsibilitatea duen pertsona batekin).
- **Komunikazio Sistema Handigarriak eta Alternatiboak (SAAC):** ahozko hizkuntzaz bestelako adierazpen moldeak dira, ahozko hizkuntza osatzeko aukera ematen dutenak, bera bakarrik aski ez denean ingurunearekiko komunikazio eraginkor bat aurrera eramateko (handigarria) edo ahozko hizkuntza ordeztzen dutenean, ulergarria ez denean,

⁵ https://www.plenainclusion.org/wp-content/uploads/2021/03/10_pautas_accesibilidad_cognitiva_contenidos_web_y_app.pdf

edo ahozko hizkuntzarik ez dagoenean (alternatiboa). Hainbat sinbolo-sistema erabiltzen dituzte.

○ Grafikoak:

- Argazkiak, marrazkiak
- Piktogramak: Alfabetatu gabeko pertsonekin edo ahozko komunikaziorako arazoak dituztenekin komunikatzeko erabiltzen dira. Gure testuinguruan gehien erabiltzen den sistema piktografikoa SPC delakoa da (Komunikazio Sistema Piktografikoa).⁶
- Hitzak edo letrak



Produktu lagungarriak behar izaten dute, adibidez:

- Hizkuntza artifizialeko komunikatzaileak
- Sakagailuak
- Ordenagailu pertsonalak eta tabletak programa bereziekin
- Sarbidea izateko gailuak (saguaren gailu alternatiboak, teklatura...)
- Baliabide ez teknologikoak ere izan daitezke, besteak beste taulak, liburuak edo komunikaziorako giltzatakoak

○ Keinu bidez:

- Mimika
 - Laguntzeko keinuak
 - Komunikazio bimodala: mezua ahoz eta eskuetako keinuen bidez adierazten da. Hitz egiten denean, eduki semantikoa duten hitzak bakarrik adierazten dira keinuz. Komunikazio forma honetan ez da esaldiaren zatirik ezabatzen.
 - Hitza eta osagarria: komunikazio sistema honek ezpainen irakurketa erabiltzen du, eta osagarri gisa eskuen posizioak, berez esanahirik ez dutenak, baina interpretazioen edozein anbiguetate saihesten dutenak.
 - Zeinu-hizkuntza ez da SAAC-tzat hartzen, hizkuntza garatua baita
- **Hitzaldiak eta aurkezpenak:** Ulerterrazak izateko moduan egin daitezke. Era horretan, nolabaiteko desgaitasun intelektuala duten pertsonak dira onuradun, baina umeak edo hizkuntza ongi ezagutzen ez duten pertsonak ere bai. Plena Inclusión sarearen “Cómo dar una charla fácil de entender⁷”, (Nola eman erraz ulertzeko moduko hitzaldi bat) gidaliburu arinean hainbat irizpide aurki daitezke.

⁶ Eskuliburu honetan erabilitako piktogramak Aragoiko Gobernuarenak dira, eta Sergio Palaok sortu ditu ARASAACentzat (<http://www.arasaac.org>), Creative Commons BY-NC-SA lizentziapean banatzen dituela

⁷ https://www.plenainclusion.org/wp-content/uploads/2021/03/como_dar_una_charla_facil_de_entender.pdf



Iruñeko Irakurketa Erraza Klubaren saioa Nafarroako Liburutegian. Nuria Carcavillaren "La vuelta al mundo" liburua. Gabriela Barriok egindako panpina.

ESPAZIO FISIKOAK

- Garrantzitsua da egiaztatzea ea espazioak **ulerterrazak** diren eta erraza ote den eraikinean edo ingurunean barna mugitzea. Ulertzeko zailtasunak dituzten pertsonekin batera egin behar da lan hori.
- Lekuaren **planoak eta mapak** arlo kognitiboan irisgarriak izan daitezke hainbat irizpide jarraituz gero, adibidez, ezinbestekoa den informazioa bakarrik aurkeztea, informazioa kokatzea irudikatutako elementuetatik hurbil, ibilbideak seinalatzea oso modu esplizituan eta argian, etab. Informazio gehiago dago horri buruz Plena inclusión erakundeak egindako "Cómo crear planos y mapas accesibles"⁸ (Nola sortu plano eta mapa irisgarriak) gidaliburuan.
- Ibilbideak egiteko behar diren **denborak adieraztea**, berdin erakusketa ikusteko edo zenbait espaziotara iristeko, komunera, kafetegira, etab.
- **Harrera zerbitzu** bat antolatzea, erabiltzaileari laguntzeko lekura iristen den unetik bere tokia hartzen duen arte, edo erakusketa nahiz bisitaren ibilbidera sartzen den arte. Kultura ekintza bukatuta irteerara ere lagundu behar zaio.
- **Laguntzako zakurren** sarrera bermatzea.

⁸ https://www.plenainclusion.org/wp-content/uploads/2021/03/como_crear_planos_y_mapas_accesibles.pdf

LAGUNTZAKO PERTSONAK

- Kontuan izan behar da desgaitasun kognitiboa duten pertsona batzuek laguntzako pertsona bat behar izaten dutela, eta hura gabe ezin izanen luketela kultur ekitaldi horretaz gozatu. Beraz, pertsona laguntzaile horiek ez lirateke ohiko ikusletzat hartu behar, eta komenigarria izanen litzateke kasu horietan doan sartzeko aukera izatea.

CATERING ZERBITZUA

- Otamen bat eskaintzen bada, kontuan izan behar dira gai hauek, desgaitasun kognitibo motaren bat duten pertsona guztientzako irisgarria izan dadin:
 - Gomendagarria da jangai bakoitzak ondoan etiketa bat izatea, jakin ahal izateko zer osagai daramatzen, piktogramen bidez edo irakurketa errazaren bidez.

Nolako behar du irisgarritasun kognitiboko beharrak dituzten pertsonetako interakzioak?

- Hitz egitea beti pertsona horri eta ez haren laguntzaileei.
- Haiekin hitz egitea hizkera argi eta errazean.
- Autonomoak izateko aukera ematea, behar-beharrezkoa duten laguntza bakarrik emanez.
- Ez ume gisa tratatzea.
- Interakzioan aritzeko behar duten denbora ematea.
- Irisgarritasun kognitiboko baliabideak behar ote dituen zalantza badugu, begirunez galdetzea.

5.3.5 Adibide praktikoa, kultura ondasun eta zerbitzuei aplikatua.

<i>MUSEO CASA CERVANTES</i>	
Tokia	Valladolid
Erakundea	Kultura et Kirol Ministerioa, Gaztela eta Leongo Plena Inclusión erakundearekin
Data	Gaur egun
Deskribapen orokorra	<p>Proiektuaren helburua da museoak irisgarriagoak izatea adimen desgaitasuna duten pertsonentzat. Irakurketa errazeko materialak editatu dira, eta museoetako planoak eta liburuxkak egin dira, publiko mota guztientzat ulerterrazagoak.</p> <p>Plano berriek jarraitu beharreko bideak indartzen dituzte, ikono soilekin adierazten dituzte zerbitzu batzuk, eta kolorez markatzen dituzte zona desberdinak. Hainbat pieza garrantzitsu ere nabarmentzen dituzte.</p> <p>Proiektua Museos+ Sociales programaren esparruan sartzen da.</p>
Estekak/kontakua	https://www.culturaydeporte.gob.es/museocasacervantes/informacion/accesibilidad-cognitiva.html

6 JARDUNBIDE EGOKIAK

Epigrafe honetan aurkezten dira estatuan eta nazioarteko esparruan dauden hainbat jardunbide egoki, beste leku batzuetara eraman eta iradokigarriak izan daitezkeenak.

6.1 NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

NAFARROAKO MUSEOKO SEI MAISULAN	
Tokia	IRUÑA
Erakundea	NAFARROAKO MUSEOA
Data	2018
Deskribapen orokorra	Gidaliburu bat da, Nafarroako Museoko 6 artelan aurkezten dituen, irakurketa errazean eta Braille sisteman. Bi aukerak sarrerako mahaian daude, Museoa bisitatzen dutenen eskura. Gainera, irakurketa errazeko gida interneten kontsultatu daiteke, edo PDF bertsioa deskargatu.
Estekak/kontaktua	http://www.navarra.es/NR/rdonlyres/8AFF6BC4-5295-403F-BAFA-195C7E776DFC/406734/6 obras maestras MuseoNav acc.pdf San Domingo kalea 47, 31001 - Iruña. Bulegoko telefonoa 848 426492 / 848 426493 Posta elektronikoa: museo@navarra.es

AUTONOMIA EDO TOKI ARLOKO EKINTZARIK ONENAREN SARIA, BAKEAREN, BIZIKIDETZAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN ZUZENDARITZA NAGUSIARI

Tokia	NAFARROA
Erakundea	Nafarroako Gobernuaren Herritarrekiko Harremanetako Departamentuaren Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia.
Data	2021
Deskribapen orokorra	CERMik 2021ean eman zion Zuzendaritza horri "Autonomia eta/edo Toki arloko Ekintzarik Onena" saria. Espazio fisikoetan egin diren erakusketek irisgarritasun unibertsala bete dute. Haietako batzuk izan dira hauek: Úriz

Pi ahizpei eskainitakoa, los Nadies, Fronteras de Hormigón edo Aktion T-Asesinando por convicción. Haietan guztietan, mikroguneak sortu dira, eta haietara irits daiteke erakusketan bertan ezarritako QR kode edo bluetooth baliza baten bidez, informazioa irisgarria egiten baitute pertsona itsuentzat.

Panel bat ere diseinatu da, informazioa ematen duena erakusketaren irisgarritasunari buruz, eta proiektuari edo erakusketari buruzko informazioa egokitu da irisgarritasun mota desberdinen arabera: kognitiboa (irakurketa erraza), auditiboa (bideo azpititulatuak UNE 153010 arauaren arabera, zeinu-hizkuntzan eta hitz eginak), bisuala (web-orriak edo PDF irisgarriak pantaila-irakurleentzat, irudi deskribatuekin, eta eduki guztiak ikusmen urriko pertsonak balidatuta) eta fisikoa (erakustokien analisiak eta irisgarritasuna hobetzeko iradokizunak; webguneak desgaitasun fisikoa duten pertsonentzat irisgarriak egiteko jarraibideak).

Gainera, zenbait web-mintegi irisgarriak egiteko ere lan egin da, esaterako, hauen ingurukoak: Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, Duintasunez hiltzeko eskubidea, Los Nadies, Bizikidetzarako hezkuntza prozesuak, Bizikidetzara gorrotorik gabe idazten da edo Familia harrera, gizarte larrialdia.

Web-mintegietarako, ondoko jarduketa hauek egin dira bermatzeko irisgarritasun kognitiboa (irakurketa errazera egokitu dira gonbidapenak, inskripzioa egiteko galdetegia, konfirmazio postak eta eskertzeko postak), ikusmen irisgarritasuna (HTML diseinua lehen aipatutako irakurketa errazeko piezen irudien deskribapenekin, ikusmen desgaitasuna duten pertsonentzako ere irisgarriak izan zitezten, eta eduki osoa ikusmen urriko pertsonak balidatuta), edo entzumen irisgarritasuna (zuzeneko azpitituluak, estenotipia, zeinuen hizkuntzako interpretea, eta audiobisuala egitea, web-mintegiak irisgarriak egiteko pertsona gorrentzat).

Estekak/kontaktua

<https://pazyconvivencia.navarra.es/eu/oroibidea>

Telefonoa: 848 42 65 22

e-mail: pazyconvivencia@navarra.es

IRISGARRITASUN UNIBERTSALA ERRIBERRIKO ERREGE-ERREGINEN JAUREGIRA

Tokia	ERRIBERRI
Erakundea	ERRIBERRIKO ERREGE-ERREGINEN JAUREGIA
Data	Gaur egun
Deskribapen orokorra	<p>Auto-gidarako eskuliburua irakurketa errazeko bertsioan du eskuragarri.</p> <p>Ibilbidea pertsona gorrentzat ere irisgarria da, hainbat bideo erabiliz, zeinuen hizkuntzan eta azpigitulatuak, euskaraz eta gaztelaniaz.</p> <p>Era berean, 360º-ko bisita birtuala egin daiteke museora, Jauregiaren web-orrian</p>
Estekak/kontaktua	<p>https://guiartenavarra.com/PALACIO/</p> <p>Telefonoa: 948 74 12 73</p> <p>info@guiartenavarra.com</p>

"LAS ERETAS" GUNERAKO IRISGARRITASUN UNIBERTSALA

Tokia	BERBINTZANA
Erakundea	LAS ERETASKO MUSEO ETA AZTARNATEGI ARKEOLOGIKOA
Data	Gaur egun
Deskribapen orokorra	<p>Bluetooth bidezko sistema bat du, ikusmen desgaitasuna duten pertsonentzat irisgarria egiten duena informazio museografiko guztia, audioan eta letra handigarrian, sakelako telefonoen bitartez. Gainera, liburuxka eskuragarri dago Braillean.</p> <p>Indukzio magnetikoko lakioak eta begiztak eskaintzen dira, entzumen zailtasunak dituzten pertsonentzat. Museoan aurkezten den dokumentala zeinuen hizkuntzan eskaintzen da. Dokumentalaz gain, Eretas Museoko panelek QR kode batzuk dituzte, non deskargatu daitekeen informazioa zeinuen hizkuntzan.</p> <p>Informazioa emateko liburuxka irakurketa errazean irakur daiteke, eta</p>

	<p>Museoko panel bakoitzak QR kode bana du, non deskargatu daitekeen informazioa irakurketa errazean.</p> <p>Aztarnategiko lurzoruko hartxintxarraren ordeztu egurrezko zaldainak jarri dira, irisgarriagoak baitira, irisgarritasun fisikoko beharrak dituzten pertsonentzat. Museo osoa dago beheko solairuan, eta komun egokituak ditu.</p>
Estekak/kontaktua	<p>info@eretas.es</p> <p>Telefonoa: 948 722176 (larunbat, igande eta jaiegunetan)</p> <p>Telefonoa: 630 225 80</p>

DASTATU IRUÑA IBILBIDEA

Tokia	IRUÑA
Erakundea	IRUÑEKO UDALA
Data	2021
Deskribapen orokorra	<p>Iruñeko Udalak informazio turistikoa eskuratzeko hamabost puntu jarri ditu Donejakue Bideko ibilbide gastronomikoan barna, non Navilens eta Navilens go aplikazioen bitartez, desgaitasuna duten pertsonak eskuratzeko ahal dituzten eremu bakoitzak eskaintzen dituen ideiak, proposamenak eta datuak, beren sakelako telefonora zuzen iristen dena, beren profil funtzionalera egokituta.</p>
Estekak/kontaktua	<p>https://www.pamplona.es/actualidad/noticias/pamplona-hace-mas-accesible-el-turismo-las-personas-con-discapacidad-en-una-de</p> <p>Telefonoa: 948420717</p> <p>Posta elektronikoa: comercioyturismo@pamplona.es</p>

IRAKURKETA ERRAZA NAFARROAKO LIBURUTEGIAN

Tokia	NAFARROA
Erakundea	NAFARROAKO LIBURUTEGIA

Data	Gaur egun
Deskribapen orokorra	Liburutegiak badu interes iraunkorreko zentro bat irakurketa errazari eskainia
Estekak/kontaktua	http://www.navarra.es/opac/abnetcl.exe/O7544/ID3f3d7d05?ACC=161 Telefonoa: 848 427 797 bibliotecadenavarra@navarra.es

SENTITZEKO MUSIKA	
Tokia	NAFARROA
Erakundea	IRUÑA JAZZ
Data	2019-Gaur egun
Deskribapen orokorra	Proiektuaren helburua da musika pertsona gorrengana eta gor-itsuengana hurbiltzea, tailerren bitartez
Estekak/kontaktua	https://pamplonajazz.com/talleres-inclusivos/ Telefonoa: 676 04 23 88 pamplonajazz@gmail.com

INDUKZIO MAGNETIKOKO BEGIZTA LA HABA KULTURA ETXEAN

Tokia	BADAJOZ
Erakundea	LA HABA KULTURA ETXEA
Data	2018ko otsaila
Deskribapen orokorra	Indukzio magnetikoko begizta soinu sistema bat da, audio seinalea eraldatzen duena, entzumen desgaitasuna duten pertsonen audifonoaren bidez hartu ahal izan dezaten. Sistema horrek eremu magnetiko bat sortzen du, soinua ikuslearen audifonora irits dadin modu garbi eta perfektuan. Hori instalatzeak herritar guztien eskura jartzen du jarduera kulturala.
Estekak/kontaktua	Calle Juan Arias, 1 06714 Haba (La) Badajoz 671350524 unipopular@lahaba.es http://www.lahaba.es

**EXTREMADURAKO ZINE INKLUSIBO ETA DESGAITASUNAREN LEHENENGO ASTEA
(SECUNDI)**

Tokia	MERIDA
Erakundea	CB FUNDAZIOAREN "SANTO DOMINGO" KULTURA ZENTROA
Data	2018ko urria
Deskribapen orokorra	<p>Urriaren 15etik 19ra, CB Fundazioaren "Santo Domingo" Kultura Zentroak, Meridan, Extremadurako Zine Inklusibo eta Desgaitasunaren Lehenengo Astea (Secindi) eskaini zuen.</p> <p>Helburua zen desgaitasuna duten pertsonak integratzea, zine irisgarria posiblea eginez, azpigituluuen bidez eta audio-deskribapenen bidez, eta dibertsitate funtzionalari protagonismo handiagoa ematen dioten pelikulak ekartzeko aukera emanez.</p> <p>"Santo Domingo" Kultura Zentroa egokitu zen desgaitasun fisikoa duten pertsonen eta entzumen eta ikusmen zailtasunak dituzten pertsonen beharren arabera.</p> <p>Baliabide hauek jarri zituzten eskura:</p> <ul style="list-style-type: none"> → Indukzio magnetikoko begizta (audifonoa duten pertsonetikiko komunikazio sistema) → Audio-deskribapena → Zeinu-hizkuntza
Estekak/kontaktua	<p>https://fundacioncb.es/</p> <p>C/ Pablo Sorozábal, s/n</p> <p>06006 Badajoz</p> <p>Tel.: 924 17 16 18</p>

EL SOPLAO HAITZULOAK KANTABRIA

Tokia	KANTABRIA
Erakundea	EL SOPLAO HAITZULOAK
Data	2019
Deskribapen orokorra	<p>Haitzulo natural hau XX. mendearen hasieran aurkitu zen, eta formazio aniztasun oparoaz gain, mehatzeetako arkeologia industrialeko ondare zabala erakusten du. Irisgarritasun Unibertsaleko Ziurtagiria duen Europako lehenengo haitzuloa da, desgaitasun fisiko, sentsorial eta auditiboak dituzten pertsoneri haitzuloa mugapenik gabe bisitatzeko aukera bermatzen baitie.</p> <p>Hona hemen aurrera eraman diren jarduketa batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> → Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako lekuen kopurua zabaldu da. → Eskudelak ezarri dira aparkalekutik instalazioetara iristeko bidean → Gurpil-aulkientzako jasogailua jarri da, eta erakusmahaien altuera jaitsi da → Hainbat jarduketa egin dira informazioa desgaitasun auditiboa eta ikusmen mugatua duten pertsonentzat egokitzeko, audio sistemak eta desfibriladore bat instalatzea
Estekak/kontaktua	<p>Prao El Collao, s/n 39553 Celis-Rionansa</p> <p>https://www.elsoplao.es/es/</p> <p>902820282</p> <p>elsoplao@elsoplao.es</p>

ESPAINIAKO LEHENENGO AUTOBUS INKLUSIBOA

Tokia	ARABA
Erakundea	<p>Entitate hauek batera egindako proiektua:</p> <p>AUTOCARES VÍCTOR BAYO</p> <p>BODEGAS VALDEMAR</p> <p>CONSULTORA EQUALITAS VITAE</p> <p>FUNDACION IDEAS</p> <p>PLENA INCLUSIÓN LA RIOJA</p>
Data	2019
Deskribapen orokorra	<p>Bus turistikoa inklusibo honek 57 bidaiarientzako edukiera du, eta desgaitasun mota guztiak kontuan hartuta egin da:</p> <p>Ikusmen desgaitasuna duten pertsonentzat</p> <p>Braille sistema eta soinu ohartarazpenak dira autobus hau ikusmen urria edo itsutasuna duten pertsonentzat irisgarria egiten duten ezaugarri nagusiak.</p> <p>Eserlekuak eta konpartimentuak braille sisteman numeratuta daude. Gainera, autobusetik ateratzeko eta segurtasunerako arauak ere irakurketa-idazketa sistema berean daude eskuragarri. Soinu sistema bat ere instalatua du, ibilgailuaren ateak irekitzen eta ixten direla adierazten duena.</p> <p>Entzumen desgaitasuna duten pertsonentzat</p> <p>Autobusa, batik bat, bisita eta txango enoturistikoetarako diseinatuta dagoenez, garrantzitsua da bidaiari bakoitzak jaso ahal izatea gidak ematen duen informazioa. Kasu honetan, ibilgailuari begizta magnetikoak erantsi zaizkio, audifonoa edo inplante koklearrak erabiltzen dituzten pertsonak azalpenak argitasun handiagoz entzun ditzaten. Kamera sistema bat ere instalatu da, gidaren aurpegia grabatzen duena. Era horretan, busaren hainbat lekutan kokatutako pantaila txikien bidez, ezpainen</p>

	<p>irakurketa erabiltzen duten pertsonak ere azalpena jarraitu ahal izanen dute.</p> <p>Mugikortasun urriko pertsonentzat</p> <p>Autobusaren irisgarritasun fisikoari dagokionez (alderdi hori ona da pertsona guztientzat, makila edo gurpil-aulkia erabiltzen dutenentzat ez ezik), ibilgailuak eskailerak gainditzeko plataforma bat du eta tamaina handiagoko ate bat atzean, mugikortasuna errazteko.</p> <p>Horrez gain, barnean badu finkatze eta segurtasun sistema bat 13 gurpil-aulkirentzat. Eserlekuak ere desmontagarriak dira, eta horrek esertzeko prozesua errazten die ohiko eserlekua nahiago duten pertsonari.</p>
Estekak/kontaktua	<p>https://www.rutadelvinoriberadelduero.es/es/servicios-turisticos/autocares-victor-bayo</p> <p>https://versinlimitesaccesibilidad.com/bus-turistico-inclusivo-para-todos/</p>

SENTIR O MAR, RIAS BAIXAS

Tokia	MUROS-NOIA
Erakundea	GRUPO DE ACCIÓN LOCAL DEL SETOR PESQUERO SEO DE FISTERRA RÍA DE MUROS-NOIA
Data	2018
Deskribapen orokorra	<p>Ekimena funtsean da itsas ingurunera usadiozko ontzien bitartez hurbiltzeko jardunaldi bat antolatzea, ikusmen desgaitasuna duten kolektiboentzat.</p> <p>ONCEn laguntzarekin, itsasontzietako langileek mekanika egokitzeko prestakuntza eta materialak jaso zituzten. Aldi berean, ikusmen desgaitasuna duten pertsonen braille hizkuntza eta maketak erabili ahal izan zituzten, ontziak alde aurretik “ezagutu” ahal izateko.</p>
Estekak/kontaktua	<p>www.joaquinvietta.com</p> <p>www.culturmar.org</p> <p>www.canle.org</p> <p>www.muros.gal</p>

38

BARTZELONAKO ARTE GARAIKIDEKO MUSEOA (MACBA)

Tokia	BARTZELONA
Erakundea	Bartzelonako Arte Garaikideko Museoa (MACBA)
Data	2018
Deskribapen orokorra	<p>Museoan 2018an ezarri ziren neurriak honako hauek izan dira:</p> <ul style="list-style-type: none">→ Irisgarritasuneko langile espezialistaren figura sortu da zentroko langileen taldean.→ Museoko artelan batzuk ukitzeko aukera izanen dute desgaitasun motaren bat duten pertsonak.→ Aretoetan kontuan hartzen da horman zintzilik dauden artelanean altuera, hala nola testuena eta beira-arasena ere, ikuspenik egokiena bermatzeko gurpil-aulkian dabilen bisitariarentzat.→ 20 aulki diseinatuta bisitarien profil desberdinentzat, eta norbanakoentzako begizta magnetikoak, lepoko erakoak, azalpenak jasotzeko kablerik gabeko hartze-sistemen bidez, bisita gidatuetan eta talde jardueretan erabiltzen direnak.→ Gurpil-aulkiak eskaintzen zaizkie mugikortasun urriko bisitariei, eta 2,8ko handipeneko bi lupa daude bisitarien eskura, ikusmen urriko pertsonentzat, beste hainbat tresnaz gain.
Estekak/kontaktua	<p>https://www.macba.cat/es</p> <p>Plaça dels Àngels, 1 08001 Barcelona</p> <p>Tel. (Museoa): +34 93 412 08 10 Tel. (Bulegoak): +34 93 481 33 50</p>

TEATRO CIRCO EN ALBACETE

Tokia	GAZTELA-MANTXA
Erakundea	TEATRO CIRCO
Data	2002ko iraila
Deskribapen orokorra	<p>Antzerki honetan irisgarritasun orokorreko bi jardunbide egoki aurkitzen ditugu, hemen azaltzen direnak:</p> <p>→ <i>Espazio erreserbatuak.</i> Gurpil-aulkia erabiltzen duten pertsonentzako erreserbatutako guneak besaulki-patioan kokatuta daude. Aretoaren sarreraren ondoan kokatuta daude, azken lerroaren moduan markatutako espazio batean, sartu eta ateratzeko mugimenduak errazteko. Garrantzitsua da azpimarratzea erreserbatu behar direla, gurpil-aulki bat edo batzuk kokatzeko lekua ez ezik (0,80m x 1,20m aulki bakoitzeko), haiekin batera joan diren laguntzaileentzako lekuak ere. Horretarako, eremu horretan ohiko besaulkiak ere jartzen dira, pistan instalatzen direnak bezalakoak, eta erraz mugitu eta ken daitezkeenak.</p> <p>→ Antzerki-Zirkoaren berrikuntza handienetako bat zera da, bere konfigurazioari esker, aukera ematen duela <i>antzezle izan daitezen desgaitasun motaren bat duten pertsonak ere.</i> Hori hala da, espazio eszeniko osoa alboetako pasabideen maila berean dagoelako, eta sarrerarekin konektatuta. Eszenatoki horren bi aldeetan badira kamerinoak, dutxak eta komunak, erabat egokituak. Diseinu integratzaile eta normalizatzaileari esker, horiek erabili ohi dituzte espazio eszenikoan parte hartzen duten pertsona guztiek, desgaitasuna dutenek eta desgaitasunik ez dutenek ere.</p>
Estekak/konkretua	https://www.castillalamancha.es/sites/default/files/documentos/20120511/libro_buenaspracticassaccesibilidaduniversal.pdf

UFFIZI UKITZEKO

Tokia	Florentzia
Erakundea	Uffizi Galeria
Data	2013tik aurrera
Deskribapen orokorra	<p>Uffizi ukimen-ibilbidea modu independentean jarrai daiteke, eta barne hartzen du galeriaren estatua-bilduma eta eraikin guztia bisitatzeko aukera, aretoetan dauden erliebeko mapen jarraibideak jarraituta.</p> <p>Uki daitezkeen artelanak 30 inguru dira. Artelan bakoitzaren aurrean atril bana dago, Braille testu bat, ingeleraz eta italieraz, erakusten duena. Eskatuz gero, sarreran eskularru pare bat hartzen ahal da, zaharbertzaileek erabiltzen dituztenen antzekoak, artelanen gainazalaren formak eta ezaugarriak hatzemandeko aukera ematen dutenak. Galeriako langileak berariaz prestatu daude, ikusmen desgaitasuna duten pertsonen harrera egiteko.</p>
Estekak/kontaktua	https://www.virtualuffizi.com/es/el-recorrido-t%C3%A1ctil-de-los-uffizi.html

CHESTER HIRIA, ERRESUMA BATUA

Tokia	CHESTER
Erakundea	CHESTER-KO UDALA
Data	2017
Deskribapen orokorra	<p>Chester hiri historikoa da, ospetsua 3,2 km-ko harresiengatik, Erresuma Batuko harresi erromatar, saxoi eta erdi arokoen ibilbide osoena eratzen baitute. Oso ezaguna da, baita ere, The Rows deitzen diren lau kale nagusietan dituen galeria jasoengatik. Monumentu eta eraikin historikoen sarbideak egokitzeko, neurri hauek inplementatu ziren:</p> <ul style="list-style-type: none"> → Ukipen-lurzoruak eta eskudela osagarriak ezarri ziren harresi eta galerietan. → Galeria jasoetara iristea errazteko konbinatu ziren hainbat arrapala, maila bereko bideak, igogailu bat eta eskailera mekaniko bat. Sarbideen iragarki ugari daude paneletan jarriak, hiri osoan barna eta hirigunera sartzeko liburuxkan. → Beren desgaitasunagatik instalazio bereziak behar dituzten pertsonak hiriaz denbora luzeagoz gozatzeko aukera izan dezaten, lau komun publiko ezarri dira. Komun egokitu estandarrak baino handiagoak dira, eta barnean dituzte jasogailuak, altuera doigarria duen aldaleku bat, konketa eta dutxa. → Garraio publikoko 129 autobusak guztiz egokituta daude, eta gainera, Chesterrek badu telefono sistema bat, gurpil-aulkietarako egokitutako zortzi ibilgailuren zerbitzua eskaintzen duena, atez ateko garraioa eskaintzeko, zerbitzu orokorrak erabiltzeko aukerarik ez duten pertsonentzat. Aldirietako disuasioko aparkaleku (park and ride) sarea hirigunearekin konektatzeko zerbitzua ematen duten autobus guztiak ere irisgarriak dira. → Udalak eskatzen du lizentzia duten 192 taxiak gurpil-aulkietarako egokituak izatea eta beste hainbat ezaugarri izatea, esaterako indukzio begiztak eta kolorez nabarmentzen diren heldulekuak. → Chesterren dauden udal eraikin guztiak egokitu dira irisgarriak izan daitezen, eta udal zerbitzu eta instalazio publiko berri guztiak diseinatuta daude hasieratik irisgarriak izan daitezen. Adibidez,

	<p>hiriko Foroaren bezeroari arreta emateko zerbitzua eta hiri osoan barna hedatzen diren hamabi liburutegi iConnect erako bideoez hornituta daude, pertsonak aurrez aurre hitz egin ahal izan dezaten udalaren bezeroaren zerbitzua atenditzen duten langileekin.</p> <p>→ «Shopmobility» zerbitzua, adineko pertsonen eta desgaitasuna dutenentzako aukera ematen duena gurpil-aulki bat edo motor bat, aisiaren eta kulturaren eremuetara iristen laguntzeko. Sistema eskuragarri dago astean zazpi egunez, eta laguntza zerbitzua ere eskaintzen du («Ability Angels»), beharra duten pertsonen eraketak egitera joateko laguntzailea eskaintzen duena.</p> <p>Neurri horiengatik guztiengatik hiri horrek irabazi du Europako Batzordeak eta Desgaitasunaren Foro Europarrak ematen duten <i>Access City Award</i> saria.</p>
Estekak/kontaktua	<p>https://www.cheshirewestandchester.gov.uk/home.aspx</p> <p>file:///C:/Users/usuario/Downloads/access-city-final-[onlineacces] ES updated%2004.pdf</p>

ROTTERDAM HIRIA, HERBEHEREAK

Tokia	ROTTERDAM
Erakundea	ROTTERDAMGO UDALA
Data	2014
Deskribapen orokorra	<p>Rotterdam Herbeheretako bigarren hiri handiena da, eta hango itsas portu nagusia. 610.000 biztanle ditu, eta haietatik 30.000k adierazi dute nolabaiteko desgaitasuna dutela.</p> <p>Hona hemen irisgarritasun unibertsalaren aldeko ekintza garrantzitsuetako batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> → Garraio publikoaren geltokiek audio-informazioa dute ikusmen arazoak dituzten pertsonentzat, eta leku jendetsuen audio-gidak ere bai, eta hiri osoan barna dabil hurbiltasuneko bus zerbitzua, boluntarioek ematen dutena, zerbitzua eskainiz 55 urtetik gorako pertsoneri, hirugarren adineko pertsonen gizartean duten parte hartzea sustatzeko. → Kirolaren esparruan, hainbat instalazio eraiki dira, ikusmenik gabeko pertsonen aukera izan dezaten futbol (esaterako Feyenoord futbol taldea) eta tenis partidez gozatzeko. → Jolastoki inklusibo bat ere badago Itsas Museoan, eta mugikortasun orgatxoentzako ibilbide bat ere bai, Lorategi Botanikoan. → Auzoetako gidak prestatu eta inprimatu dira, aholku praktikoak eskainiz hainbat gairi buruz, esaterako bidaiak, ostatu hartzea eta hirian egin daitezkeen gauzei buruzko informazioa. Hainbat boluntario prestatzen ari dira laguntzaile izateko, artatzeari, arretari eta jarduerari buruzko informazio zabala emanez.
Estekak/kontaktua	https://www.rotterdam.nl/english/city-government/

SALCAJÁ UDALERRIKO KULTURA ETA AISIAREN ESKAINTZAREN IRISGARRITASUNA

Tokia	GUATEMALA, QUETZALTENANGO
Erakundea	Salcajá-ko Udala, Quetzaltenango
Data	2017ko iraila
Deskribapen orokorra	<p>Udal honetan, eta Lurralde Antolatze Planaren barnean, ibilbide bat prestatu zen, desgaitasuna duten pertsonak eta oinezkoak gidatzeko hiriak dituen turismo eta aisialdi guneetara. Udalerriaren barneko aldea deskongestionatu zen eta aldiriko pasabide bat ere zabaldu zen, garraio astun eta tonaje handikoarentzat. Era horretan diseinatu zen barne-ibilbide hori, ondoren bihurtu zena udalerriko eta eskualdeko mugikortasunaren eta irisgarritasun unibertsalaren lehenengo erreferentea, eta aukera ematen die desgaitasuna duten pertsoneri, aisialdi eta kultura gunez gozatzeko.</p> <p>Kulturaren irisgarritasun unibertsalaren jardunbide horrek <i>Udalen Irisgarritasun Unibertsalaren 2018ko Letizia Erregina Saria</i> jaso zuen.</p>
Estekak/kontaktua	https://www.salcaja.gob.gt/

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN IRISGARRITASUNA KULTURA ESKAINTZETARA ETA AISIALDIKO JARDUERETARA SANTIAGON (TXILE)

Tokia	SANTIAGO (TXILE)
Erakundea	TXILEKO GOBERNUA
Data	2015
Deskribapen orokorra	<p>Santiagoko (Txile) Garapen eta Integrazio Sozialeko Udal Politikaren esparruan, Santiago inklusiboa eta integratua, Desgaitasuna duten pertsonen inklusio soziala ardatzean, kulturarako irisgarritasun unibertsalaren jardunbide hauek egin dira:</p> <p>→ Ojos Cerrados esperientzia eszenikoa</p> <p>2015eko bigarren seihilekoan, desgaitasunaren bulegoak, Renato Jofré antzezle eta zuzendariarekin elkarlanean, "Ojos Cerrados" esperientzia eszenikoaren muntaia eraman zuen aurrera, Unibertsitate Zentraleko instalazioetan. Gainera, FONDART Regional 2015 funtsak finantzaturako proiektua Eskualde Metropolitanoko hainbat ikastetxetan aurkeztu zen, pertsona itsuen inklusioa balioan jarriz. "Ojos Cerrados" antzezlana mutiko baten istorioa kontatzen du: iluntasunaren beldur da, baina neskato</p>

misteriotsu eta magiko baten laguntzaz, beldurra gainditzea lortzen du.

→ Desgaitasunera hurbilduz: ibilbide inklusiboa “Concha y Toro” ondare-auzoan barna.

“Concha y Toro” ondare, turismo eta kultura gunea den auzoan dauden oztopoak gutxitzeko asmoz, lurraldeko esku-hartzea egin zen 2015eko azaroan, helburua zela desgaitasuna hurbiltzea auzoko eragileengana, direla maizterrak, auzokide batzarrak, biztanleak edo/eta iragaileak, lehenik eta behin sentsibilizazio hitzaldien bidez, eta ondoren informazioa jasoz lokal komertzialetako ordezkariari egindako inkesten bidez, “Ponte en mi lugar” jarduerarekin batera; hartan, desgaitasun bat simulatzen zen, eta auzoan barna ibiliz bizitzen ziren auzoan dauden oztopoak.

Horrez gain, zeinu-hizkuntzen ikastaroak eman zitzaizkien hango lokal eta jatetxeetan lan egiten duten langileei, eta desgaitasuna duten pertsonak prestatu ziren gida turistikoak izateko, hiriburuko ondare oparo haren irisgarritasun unibertsala eta inklusioa sustatzeko asmoz.

Azkenik, informazio plakak jarri ziren braille lengoian, hango eraikin enblematikoenen izenekin.

→ “Manos a la pared”: muralen lehenengo zirkuitua Txilen pertsona itsuentzat.

“Mu.Cho” kultura inklusiboaren aldeko erakundearekin elkarlanean, eta Fondo Nacional de Proyectos Inclusivos (FONAPI) 2017 funtsaren finantzazioaren bitartez, Txileko pertsona itsuentzako mural inklusiboen lehenengo zirkuitua garatu zen; ukimenaren eta audio-deskribapenaren bidez, Santiagoko komunako Bellas Artes auzoko eta Lastarria auzoko muralen ondarea ezagutarazten du. Jarduerak Museo de Artes Visuales (MAVI) museoaren laguntza izan zuen, eta leku hartan hasten da sei mural erakusten dituen ibilbidea, ospe handiko artistek eginak: Roberto Matta, Luis Núñez San Martín, Alexander Tadlock, Pixel Art, Francisco Maturana eta Javier Barria. Ekimen honetan sartu da, gainera, Lazarillo aplikazio telefonikoa, sakelako telefonoaren bidez edo tabletaren bidez gidatzen eta adierazten duena muralak non dauden kokatuta auzoan. Gainera, artearen zabalkuntzarako kanpaina inklusibo bat aurkezten da, braille sisteman idatzitako paperak erabiltzen dituelako, eta ekimen hori pioneroa da udalerrri hartan.

Estekak/kontaktua

<https://www.senadis.gob.cl/>. Servicio Nacional de la Discapacidad Chile.
<https://www.munistgo.cl/tag/discapacidad/>. Oficina de discapacidad de la Ilustre Municipalidad de Santiago.
<http://www.munistgo.info/dideco/> Subdirección de Desarrollo Social perteneciente a la Dirección de Desarrollo Comunitario (DIDECO)

7 ONLINE BALIABIDEAK

ARASAAC. Centro Aragonés para la Comunicación Aumentativa y Alternativa. Web honetan aurki daiteke materiala eta tresnak:

- <https://arasaac.org/>

Centro Estatal de Autonomía Personal y Ayudas Técnicas (CEAPAT):

- www.ceapat.org

CERMIN. Desgaitasunak dituzten pertsonen Nafarroako ordezkarien batzordea.

- <https://cermin.org/>

Nafarroako Kultura

- <https://www.culturana Navarra.es/eu>

CNSE Fundazioa, Confederación Estatal de Personas Sordas

- <https://www.fundacioncse.org/>

ONCE fundazioa. Haren misioa da desgaitasuna duten pertsonen gizarte inklusio osoa

- <http://fundaciononce.es/es>

Navilens. Ikusmen zailtasunak dituzten pertsonen informazioa gailu mugikorren bidez hartzeko aukera ematen dien kode sistema.

- <https://www.navilens.com/es/#main-section>

Plena Inclusión. Web honetan aurkitzen dira irisgarritasunarekin lotura duten hainbat gida: Besteak beste, honako hauek:

- “Recomendaciones para promover el uso adecuado de pictogramas para la accesibilidad universal” gida
<https://www.plenainclusion.org/publicaciones/buscador/recomendaciones-para-promover-el-uso-adecuado-de-pictogramas-para-la-accesibilidad-universal/>
- “Cómo hacer infografías fáciles de entender” gida
https://www.plenainclusion.org/wp-content/uploads/2021/03/como_hacer_infografias_faciles_de_entender.pdf
- Informazioa guztiontzat. Erraz irakurri eta ulertzeko moduko informazioa egiteko gida europarra.
https://www.plenainclusion.org/wp-content/uploads/2021/03/informacion_todos.pdf
- Irizpide eduki irisgarriak sortzeko adimen desgaitasuna edo garapen arlokoa duten pertsonentzako web-orrietan eta app-etan
https://www.plenainclusion.org/wp-content/uploads/2021/03/10_pautas_accesibilidad_cognitiva_contenidos_web_y_app.pdf
- Nola eman erraz ulertzeko moduko hitzaldi bat

https://www.plenainclusion.org/wp-content/uploads/2021/03/como_dar_una_charla_facil_de_entender.pdf

- Nola sortu plano eta mapa irisgarriak

https://www.plenainclusion.org/wp-content/uploads/2021/03/como_crear_planos_y_mapas_accesibles.pdf

Pikto-itzultzailea. Esaldi bat idatzi ahala modu automatikoan agertzen dira dagozkion piktogramak.

- <https://www.pictotraductor.com/>

8 TERMINOEN GLOSARIOA

Hona hemen IRISGARRITASUN UNIBERTSALARI BURUZKO 12/2018 FORU LEGEAK, EKAINAREN 14KOAK ematen dituen zenbait definizio:

Irisgarritasun unibertsala: Inguruneek, prozesuek, ondasunek, produktuek eta zerbitzuek zein objektuek, tresnek, bitartekoek eta gailuek bete behar duten baldintza, pertsona orok ulertu eta erabiltzeko modukoak izateko, segurtasunez eta erosotasunez, eta ahalik eta autonomia eta naturaltasun handienaz, betiere. Printzipio horrek “diseinu unibertsalaren edo pertsona ororentzako diseinuaren” estrategia du abiapuntu, eta egin beharreko arrazoizko egokitzapenik ukatu gabe ulertzen da.

Jazarpena: Pertsona baten desgaitasunarekin lotutako eta haren gogoz kontrako jokabide oro, duintasunaren aurka egiteko edo giro beldur-eragilea, umiliagarria edo iraingarria sortzeko asmoa edo ondorio hori duena.

Arrazoizko egokitzapenak: Giro fisikoa, soziala eta jarreraren ingurukoa desgaitasuna duten pertsonen behar espezifikoetara egokitzeko egin behar diren aldaketak eta egokitzapenak dira, modu eraginkor eta praktikoan eta neurritz gaineko edo bidegabeko karga ekarri gabe, desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasuna eta partaidetza errazten dutenean, eta eskubide guztiak baliatu edo gauzatzea bermatzen dituztenean, gainerako herritarren baldintza berdinetan.

Elkarrizketa zibila: Printzipio honen bitartez, desgaitasuna duten pertsonak eta haien familiak ordezkatzeko dituzten erakundeek parte hartzen dute, legeek eta gainerako arau-xedapenek ezartzen dutenari jarraituz, desgaitasuna duten pertsonen alorrean garatzen diren politika ofizialak prestatzen, gauzatzen, eta haien jarraipena eta ebaluazioa egiten; betiere hauren eskubide bat bermatu behar dute: beren iritzia libreki adieraztekoa, beraierengan eragina duten gai guztiei buruz, bai eta, eskubide hori erabiltzeko, beren desgaitasunerako eta adinerako egokia den laguntza jasotzeko eskubidea ere.

Desgaitasuna: Egoera hau bi faktore hauen arteko interakzioaren emaitza da: batetik, gabezia fisikoak, organikoak, zentzumen nahiz adimen arloetakoak, garapenekoak edo mentalak dituzten pertsonak, eta, bestetik, era guztietako oztupoak, eragozpen edo traba direnak, pertsona horiek gizartean osoki eta eraginkortasunez eta gainerako pertsonen baldintza berdinetan parte hartzeko.

Zuzeneko diskriminazioa: Desgaitasuna duen pertsona batek bizi duen egoera da, bere desgaitasuna dela-eta, beste batek baino tratatu okerragoa jasotzen duenean, antzekoa den egoera batean.

Zeharkako diskriminazioa: Zeharkako diskriminazioa dagoela ulertuko da baldin eta lege edo erregelamendu mailako xedapen batek, hitzarmen edo kontratu bidezko klausula batek, alde bakarreko erabaki batek edo irizpide edo jardunbide batek, edo itxuraz neutroa den ingurune, produktu edo zerbitzu batek, desgaitasuna dela-eta desabantaila eragiten ahal badio pertsona bati, beste batzuen aldean; betiere objektiboki helburu legitimo bat ez badu edo helburu hori lortzeko baliabideak egokiak eta beharrezkoak ez badira.

Diskriminazioa elkartzea dela-eta: Honelako diskriminazioa gertatzen da pertsona batek edo bera kide duen taldeak tratatu diskriminatzailea jasotzen duenean beste batekin duen harremanagatik, tratatu hori desgaitasunak eragindakoa denean.

Diseinu unibertsala edo pertsona ororentzako diseinua: Jarduera honen bidez, inguruneak, prozesuak, ondasunak, produktuak, zerbitzuak, objektuak, tresnak, lanabesak, programak, gailuak eta antzeko elementuak jatorritik pentsatu eta diseinatzen dira pertsona guztiek erabiltzeko modukoak izan daitezen, ahalik eta hedadura handienarekin, egokitzapenik edo diseinu espezializaturik egin beharrik gabe. «Diseinu unibertsalak edo pertsona ororentzako diseinuak» ez ditu alde batera utziko desgaitasuna duten pertsonen talde partikularrentzako laguntza produktuak, halakorik behar badute.

Gizarte inklusioa: Prozesu honen bidez gizarteak denon onerako eta kohesio sozialerako balio konpartituak sustatzen ditu, desgaitasuna duten pertsona guztiek behar diren aukerak eta baliabideak izan ditzaten, bizitza politiko, ekonomiko eta sozialean, hezkuntzan, lan eta kultur arloan bete-betean parte hartzeko, eta gainerako pertsonen bizi baldintza berdinetan bizitzeko.

Aukera berdintasuna: Desgaitasunak eragindako zuzeneko edo zeharkako diskriminaziorik ez egotea da, barne direla bereizketa, bazterketa edo murrizketa oro, desgaitasuna duten pertsonen giza eskubide eta askatasun guztiak aitortu edo baldintza berdinekin haietaz baliatzeko traba direnak edo indarrak gabe uzten dutenak, arlo politiko eta ekonomikoan, hezkuntzan, gizartean, lan edo kultur arloan eta bestelakoetan.

Ekintza positiborako neurriak: Berriazko neurriak dira, bideratuta daudenak desgaitasunak eragiten dituen desabantailak saihestu edo konpentsatzera, edo desgaitasuna duten pertsonen egiazko berdintasuna eta bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean osoki parte hartzea bizkortu edo lortzera, desgaitasun mota eta gradu desberdinak aintzat harturik.

Normalizazioa: Printzipio honen arabera, desgaitasuna duten pertsonen berdintasun baldintzetan bizitzeko aukera izan behar dute, eta beste edozein pertsonak eskura dituen leku, esparru, ondasun eta zerbitzu berberak ere.

Irisgarritasunaren arloko jarduketak plan integrala: Plan honen bidez, aplikazio esparru bakoitzean egin beharreko jarduketak identifikatu eta planifikatzen dira, foru lege honetan eta kasuan kasuko garapen araudian irisgarritasun unibertsalerako ezarritako baldintzak lortzeko.

Desgaitasun arloko politiken zeharkakotasuna: printzipio honen arabera, administrazio publikoek egiten dituzten jarduerak ez dira mugatzen pertsona hauentzako plan, programa eta ekintza espezifikotara, barne hartzen baitituzte izaera orokorreko politikak eta ekintza-ildoak ere, jarduera publikoaren edozein esparrutakoak, betiere desgaitasuna duten pertsonen beharrak eta eskakizunak aintzat harturik.

Bizimodu independentea: Egoera horretan dago desgaitasuna izanik bere existentziaren gaineko erabakimena egikaritzen duen pertsona, modu aktiboan parte hartzen duena bere komunitatearen bizitzan, pertsonalitatea era librean garatzeko eskubidearekin bat, aukeratzen ahal duelarik bere bizilekua, non eta norekin bizi, gainerako pertsonen baldintza berdinetan, eta bere burua bizitzeko sistema espezifikoko baten baitan bizitzera behartuta ikusten ez duenean.

9 ERANSKINAK

Atal honetan erakusten da kultura eta irisgarritasun unibertsala lotzen dituen araudia, Nafarroako Foru Komunitatekoa, Estatu mailakoa eta aplikatu beharreko UNE arauak.

9.1 NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO LEGEDIA

1/2019 FORU LEGEA, URTARRILAREN 15ekoa, NAFARROAKO ESKUBIDE KULTURALEI BURUZKOA

URTEA	2019
ESPARRUA	Nafarroako Foru Komunitatea
EZAUGARRI OROKORRAK	Foru lege honek errazten du kultura eskubideen erabilera, giza eskubide diren aldetik, eta kulturarako nahiz sorkuntza artistikorako irisgarritasun unibertsala eta kulturaren arloko bizitzan parte hartzea errazten ditu; orobat, sormen gaitasunerako pizgarria da, eta arte adierazpenetarako babesa da, eta aitortza eta babesa ematen die kulturaren arloko langileei eta kultura eta sorkuntza industrietako ekintzaileei.
ARTIKULU AIPAGARRIAK	6. artikulua. Kulturarako irisgarritasuna. 1. Nafarroako Administrazio Publikoek begiratuko dute kulturarako irispidea eta kultur bizitzan parte hartzea egiazko berdintasunez gauzatzen direla, jatorriak, etniak, erlijioak, ideologiak, sinesteeak, generoak, sexu orientazioak, desgaitasunak edo beste edozein ezaugarri pertsonal edo sozialek eragindako diskriminaziorik gabe. 2. Nafarroako Administrazio Publikoek baldintza egokiak sustatuko dituzte pertsonaren eta taldeen askatasuna eta berdintasuna errealak eta egiazkoak izan daitezen kulturarako irispideari eta kultur bizitzan parte hartzeari dagokienez, eta horiek erabatekoak izatea zailtzen edo eragozten duten oztopoak kenduko dituzte. Horretarako, herritarren kulturarako irispidea eta kultur bizitzan parte hartzea sustatuko dute, eta beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte, positiboak barne, pertsona eta talde ahulen eta desgaitasuna dutenen inklusioa eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ziurtatzeko.
ESTEKA	http://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=5951081

URTEA	2018
ESPARRUA	Nafarroako Foru Komunitatea
EZAUGARRI OROKORRAK	Foru lege honek pertsona guztien eta, bereziki, desgaitasunen bat duten pertsonen aukera berdintasuna, autonomia pertsonalaren sustapena, komunitate inklusioa eta bizimodu independentea bermatzeko behar diren irisgarritasun unibertsaleko baldintzak ezartzen ditu.
ARTIKULU AIPAGARRIAK	<p>6. artikulua. Irisgarritasunaren eta diskriminazio ezaren oinarrizko baldintzak.</p> <p>1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Nafarroako toki entitateei esleitutako eskumenak ezertan ukatu gabe, irisgarritasun eta diskriminazio ezaren arloan Estatuko oinarrizko araudian araututako baldintza oinarrizkoak aplikatuko dira Nafarroan.</p> <p>2. Pertsona guztiei aukera berdintasuna, autonomia pertsonala eta bizimodu independentea bermatzea da irisgarritasunaren eta diskriminazio ezaren baldintza oinarrizkoen xedea.</p> <p>3. Irisgarritasunaren eta diskriminazio ezaren oinarrizko baldintzek neurri zehatzak ezarriko dituzte esparru edo arlo bakoitzerako, diskriminazioei aurrea hartzeko edo desagerrarazteko, eta desabantailak edo zailtasunak konpentsatzeko.</p> <p>4. Irisgarritasunaren eta diskriminazio ezaren baldintza oinarrizkoak ezartzeko kontuan hartuko dira desgaitasun mota eta gradu desberdinak, eta foru lege honen aplikazio esparru bakoitzeko ingurune, prozesu, produktu, ondasun eta zerbitzuen hasierako diseinuan eta arazoizko egokitzapenetan aplikatuko dira.</p>
ESTEKA	http://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=50280

DESGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEEI ETA HAI EK GIZARTERATZEARI BURUZKO LEGE OROKORRAREN TESTU BATEGINA ONESTEN DUEN AZAROAREN 29ko 1/2013 LEGEGINTZAKO ERREGE DEKRETUA

URTEA	2013
ESPARRUA	Estatukoa
EZAUGARRI OROKORRAK	Lege honen helburua da desgaitasuna duten pertsonen aukera eta tratua berdintasunerako eskubidea bermatzea, eta desgaitasuna duten pertsonen beren eskubideak erabiltzen ahal izatea, benetan eta modu eraginkorrean, eta gainerako herritarren baldintza berdinetan, honako hauek sustatuz: norberaren autonomia, irisgarritasun unibertsala, enplegua eskuratzea, komunitate inklusioa eta bizitza independentea, eta bazterkeria mota guztiak ezabatzea
ARTIKULU AIPAGARRIAK	<p>6. artikulua. Desgaitasuna duten pertsonen autonomia errespetatzea.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Desgaitasuna duten pertsonen eskubideak egikaritzeko dira erabakiak hartzeko askatasunaren printzipioarekin bat eginez. 2. Desgaitasuna duten pertsonen erabakiak askatasunez hartzeko eskubidea dute, eta horretarako, informazioa eta adostasuna formatu egokietan eman beharko dira, norberaren zirkunstantziak aintzat hartuz, eta diseinu unibertsalaren edo ororentzako diseinuaren erregelak betez, irisgarriak eta ulergarriak izan daitezkeen guztientzat. <p>Nolanahi ere, norbanakoaren zirkunstantzia pertsonalak kontuan hartuko dira, eta haren gaitasuna erabaki mota zehatz hori hartzeko ere bai, eta erabakia hartzeko laguntza bermatuko zaio.</p>
ESTEKA	https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2013-12632

AZAROAREN 23ko 1544/2007 ERREGE DEKRETUA, DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO GARRAIO MODUAK IRISGARRI ETA ERABILGARRI IZATEKO

IRISGARRITASUNA ETA BAZTERKERIARIK EZA BERMATZEKO OINARRIZKO BALDINTZAK ARAUTZEN DITUENA

URTEA	2007
ESPARRUA	Estatukoa
EZAUGARRI OROKORRAK	Garraio moduak desgaitasuna duten pertsonentzat irisgarri izateko eta erabiltzeko oinarrizko baldintzak ezartzen ditu
ARTIKULU AIPAGARRIAK	<p>Bigarren xedapen gehigarria. Itsasoz, trenez, metroz eta hiriko nahiz hiri inguruko autobusez egiten den bidaiari-garraioan erabiltzen den material mugikorraren egokitzapenak.</p> <p>Errege dekretu hau indarrean sartzeko denean, zerbitzuan erabiltzen den material mugikorrean, airezko garraioan izan ezik, edo indarra hartu eta hurrengo hamabi hilabeteetan erosten den materialean, egokitzapenak egiten badira, hasierako kostuaren gehi amortizazio metatuaren % 30etik gorako balioagatik, behar diren aldaketak erantsiko zaizkie, irisgarritasun eta bazterkeriarik ezaren oinarrizko baldintzak emateko, lehentasun hauen hurrenkeran:</p> <p>a) Gorpil-aulkiak erabiltzen dituzten pertsonen sarbidea bermatzeko bitartekoak ezartzea, besteak beste arrapalak, jasogailuak edo antzeko mekanismoak, sarbidea izateko geltoki komertzialetako nasa guztietatik.</p> <p>b) Bidaiarientzako espazioak egokitzea desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasuna eta komunikazioa bermatzeko moduan, dagokion eranskinean jasotzen diren betebeharrak aintzat hartuta.</p>
ESTEKA	https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2007-20785

OTSAILAREN 19ko 173/2010 ERREGE DEKRETUA, DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN IRISGARRITASUN ETA BAZTERKERIARIK EZARI BURUZKO 314/2006 ERREGE DEKRETUAREN BIDEZ ONARTUTAKO ERAIKUNTZAKO KODE TEKNIKOA ALDATZEN DUENA

URTEA	2006
-------	------

ESPARRUA	Estatukoa
EZAUGARRI OROKORRAK	Eraikuntzako Kode Teknikoari eransten dizkio, Estatuko oinarrizko araudi gisa, eraikinen sarbide eta erabileran desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarritasuna eta bazterkeriarik eza bermatzeko baldintzak
ARTIKULU AIPAGARRIAK	2. artikulua. Aplikazio eremua. b) Egokitzapen funtzionala, halakotzat ulertuta egin beharreko lanak egitea, eraikinari emateko EKT horrek jasotzen dituen oinarrizko eskakizunak hobetzen dituzten baldintzak. Nolanahi ere, eraikinen egokitzapen funtzionala egiteko lantzat hartzen dira helburua dutenak oztopoak ezabatzea eta irisgarritasuna sustatzea, indarreko araudiarekin bat eginez
ESTEKA	https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2010-4056

OTSAILAREN 1eko VIV/561/2010 AGINDUA, ZEINAREN BIDEZ GARATZEN BAITA IRISGARRITASUN ETA DISKRIMINAZIOARIK EZAREN OINARRIZKO BALDINTZEN AGIRI TEKNIKOA, ESPAZIO PUBLIKO URBANIZATUAK IRISGARRI ETA ERABILGARRI EGON DAITEZEN

URTEA	2010
ESPARRUA	Estatukoa
EZAUGARRI OROKORRAK	505/2007 Errege Dekretuaren laugarren azken xedapenak jasotzen duen agindua garatzen du; haren arabera, espazio publiko urbanizatuen irisgarritasuna eta bazterkeriarik eza bermatzeko oinarrizko baldintzak jasoko dituen agiri tekniko bat prestatu behar da.
ARTIKULU AIPAGARRIAK	6. artikulua. Egoteko esparruen baldintza orokorrak. 1. Egoteko esparruak oinezkoen erabilerako eremuaren parteak dira, perimetro ireki edo itxia dutenak, non jarduera bat edo gehiago gauzatzen diren (atseden, jostaketa, merkataritza, paseoa, kirola, etab.) eta non pertsonak hainbat denboraz egoten diren; haien erabilera ez-baztertzailea da bermatu beharrekoa. 2. Egoteko esparruetarako sarbidea oinezkoen ibilbidetik irisgarria izateko bermatu behar du betetzen direla igarobideen altuera eta zabalera parametroak, eta inoiz ez dute izanen irtengunerik edo mailarik. 3. Egoteko esparruetan erabilgarri dauden instalazio, jarduera eta zerbitzu guztiek, finkoak izan nahiz behin-behinekoak izan,

	<p>lotura izan behar dute, gutxienez, oinezkoen ibilbide irisgarri baten bitartez, eta haien erabilera eta luperketa modu autonomoan eta seguruan egitea bermatuko diete pertsona guztiei, barne direla laguntza teknikoan edo laguntzako produktuen erabiltzaileak.</p> <p>4. Egoteko esparruetan egin beharreko jarduerak ikusleak erakarri behar baditu, mugikortasun urriko pertsonentzako leku bat erreserbatu beharko dute berrogei ikusleko, edo proportzio horretan, eta egoki seinaleztatuta egonen dira. Leku horiek gutxienez 1,50 metro luze eta 1,00 metro zabal izanen dira, eta oinezkoen ibilbide irisgarriaren ondoan kokatuko dira. Esparru horietan, gainera, leku batean instalatuko da, eta ongi seinalizatuta egonen da, indukzio begizta bat, edo entzumen desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasuna erraztuko duen beste sistemaren bat.</p> <p>5. Egoteko esparruetan komuna, aldagela edo dutxa daudenean, desgaitasuna duten pertsonentzako egokitutako leku bat izanen dute, gutxienez, 10 unitateko, edo proportzio horretan.</p> <p>6. Instalazio eta zerbitzuen irisgarritasuna hobetzeko, interakzioa eta pertsona guztien erabilera erraztuko dituzten gailu eta teknologia berriak jarriko dira, modu espezifikoa aintzat hartuz desgaitasun sensorial eta kognitiboa duten pertsonen arreta.</p> <p>7. Gida-zakurrak edo laguntza-zakurrak erabiltzen dituzten pertsona desgaituek espazio publiko urbanizatuez gozatzeko eskubide osoa izanen dute, arrazoi horrengatik ibiltzeko askatasuna eta irisgarritasuna murriztu gabe.</p>
ESTEKA	https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2010-4057

9.3 UNE ARAUAK

Espainiako Normalizazio Elkarte (UNE) elkarte pribatu bat da, irabazi-asmorik gabea, legez aitortua dagoena Espainian, Normalizaziorako erakunde nazional gisa. Espainiako Normalizazio Elkartearen Normalizaziorako Batzorde Teknikoek (CTN) dute UNE dokumentu arautzaileak sortzeko ardura; arau, arau esperimental eta txosten (estandarrak) multzo bat dira. Ondoren, irisgarritasun unibertsalarekin lotura dutenak aurkezten dira.

UNE-ISO 21542 ERAIKUNTZA. ERAIKITAKO INGURUNEAREN IRISGARRITASUNA

URTEA	2012
ESTEKA	https://www.une.org/encuentra-tu-norma/busca-tu-norma/norma/?c=N0050139

UNE 41500:2001 IN. IRISGARRITASUNA ERAIKUNTZAN ETA HIRIGINTZAN, DISEINURAKO IRIZPIDE OROKORRAK

URTEA	2001
ESTEKA	https://www.une.org/encuentra-tu-norma/busca-tu-norma/norma?c=N0024559

UNE 41510:2001 IRISGARRITASUNA HIRIGINTZAN

URTEA	2001
ESTEKA	https://www.une.org/encuentra-tu-norma/busca-tu-norma/norma?c=N0024536

UNE-EN 170001-1:2007 IRISGARRITASUN GLOBALA. INGURUNEAREN IRISGARRITASUNA ERRAZTEKO IRIZPIDEAK 1. ZATIA: DALCO BETEBEHARRAK

URTEA	2007
ESTEKA	https://www.une.org/encuentra-tu-norma/busca-tu-norma/norma/?c=N0025562

UNE 170002:2009 IRISGARRITASUNAREN BETEBEHARRAK ERROTULAZIORAKO

URTEA	2009
ESTEKA	https://www.une.org/encuentra-tu-norma/busca-tu-norma/norma?c=N0043689

UNE 153101:2018 EX IRAKURKETA ERRAZA. DOKUMENTUAK EGITEKO IRIZPIDEAK ETA GOMENDIOAK.

URTEA	2018
ESTEKA	https://www.une.org/encuentra-tu-norma/busca-tu-norma/norma/?c=N0060036